

2015

[a]

aztiker

Jendarte-ikerketa aplikatuak

[ARABARREN EUSKARAREN EZAGUTZA, ERABILERA ETA IRITZIAK, 2015]

Arabarren ezaugarri soziolinguistikoak eta euskarari zein Administrazioen hizkuntza politikei buruzko iritziak.



AURKIBIDEA

1	SARRERA	4
2	METODOLOGIA OHARRAK	6
	<i>Laginaren diseinua</i>	7
	<i>Laginketa</i>	7
	<i>Lagin erreala, azpi-laginak eta dagozkien akats tarteak</i>	7
	Iritzi eta balorazioen ataleko indizeen kalkulua	8
	ALDAGAI SOZIODEMOGRAFIKOAK.....	9
	ALDAGAI SOZIOLINGUISTIKOAK	11
3	HIZKUNTZA GAITASUNA	16
3.1	BIZTANLERIA HIZKUNTZA GAITASUNAREN ARABERA	16
3.2	ELEBIDUNEN SAILKAPENA EUSKARAZ EGITEKO DUTEN ERRAZTASUNAREN ARABERA (ELEBIDUN OREKATUAK EDO EUSKAL ETA ERDAL ELEBIDUNAK).....	18
3.3	HIZKUNTZA GAITASUNA HAINBAT ALDAGAIEN ARABERA	19
3.4	HIZKUNTZA-BILAKAERAREN TIPOLOGIA	22
4	HIZKUNTZA SOZIALIZAZIOA	23
4.1	16 URTETIK GORAGOKOEN HIZKUNTZA SOZIALIZAZIOA	23
	4.1.1 <i>Familia bidezko sozializazioa</i>	23
	4.1.1.1 Gurasoen hizkuntza	23
	4.1.1.2 Gurasoen hizkuntzaren bilakaera.....	24
	4.1.1.3 Arabarren lehen hizkuntza.....	25
	4.1.1.4 Lehen hizkuntzaren bilakaera.....	26
	4.1.2 <i>Eskola bidezko sozializazioa</i>	29
	4.1.3 <i>Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea</i>	33
	4.1.3.1 Euskara eskolatik kanpo ikasi dutenak (non egin dutenaren arabera).....	33
	4.1.3.2 Euskara ikasten emandako denbora eta eskuratutako maila	34
	4.1.3.3 Euskara eskolatik kanpo ikasi dutenen hizkuntza gaitasuna	35
	4.1.3.4 Ikasi duten lekuen gaineko balorazioa (euskaltegia, hizkuntza eskola, guraso eskolak, banaka atalez atalkako balorazioa).....	37
	4.1.3.5 Ikastaroaren aspektu garrantzitsuenak	38
5	EUSKARAREN ERABILERARAKO AUKEREREN HAUTEMATEA ETA PRAKTIKA	40
5.1	ERABILERARAKO AUKERAK (elebidunen dentsitatea)	40
	5.1.1 <i>Etxeko elebidunen dentsitatea</i>	40
	5.1.2 <i>Inguru hurbileko elebidunen dentsitatea</i>	41
	5.1.3 <i>Ikastetxe / lantokiko elebidunen dentsitatea</i>	43
	5.1.4 <i>Arlo pribatuko elebidunen dentsitatea</i>	45
	5.1.5 <i>Administrazioko elebidunen dentsitatea</i>	47
	5.1.6 <i>Elebidunen dentsitatea eremuka</i>	51
5.2	ERABILERAK EREMUKA	52
	5.2.1 <i>Etxean</i>	52
	5.2.2 <i>Inguru hurbilean</i>	60
	5.2.3 <i>Ikastetxe / lantokian</i>	62

5.2.4	Arlo pribatuan	64
5.2.5	Administrazioan	66
5.2.6	Erabileren sintesia	70
5.3	ELEBIDUN DENTSITATEAREN ARABERAKO ERABILERA.....	71
5.3.1	Etxean	71
5.3.2	Inguru hurbilean	73
5.3.3	Ikastetxean/lantokian	75
5.3.4	Arlo pribatuan	77
	Saltzaile elebidun dentsitatearen arabera.....	77
5.3.5	Administrazioan	79
5.4	ERABILERARAKO JARRERA	83
6	GAZTERIA, AISIA ETA KIROLA	84
6.1	AISIALDIARI LOTUTAKO GAZTEENTZAKO ESKAINTZAREN KONTSUMOA (OROKORREAN ETA EUSKARAZ)	84
6.2	UDALEKUAK	85
6.3	AISIALDIKO EKINTZAK	86
7	KIROL EKINTZAK	87
7.1	KIROL EKINTZEN KONTSUMOA	87
7.2	EUSKARAZKO KIROL EKINTZEN ESKARIA.....	89
8	KULTURGINTZA.....	90
8.1	ESKAINZA KULTURALAREN KONTSUMOA.....	90
8.2	EUSKARAZKO ESKAINZA KULTURALAREN ESKARIA	92
8.3	IRAKURZALETASUNA ETA EUSKARAZKO LIBURUEN KONTSUMOA.....	94
9	KOMUNIKABIDEAK ETA IKT-AK.....	96
9.1	TELEBISTA, IRRATIA ETA INTERNETEN ERABILERA (OROKORREAN ETA EUSKARAZ)	96
9.2	SARE SOZIALEN ERABILERA	100
9.3	EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEEN GAINEKO EZAGUTZA ETA ERABILERA	102
10	EUSKARAREN GAINEKO HAUTEMATE, JARRERA ETA IRITZIAK.....	104
10.1	EUSKARAREN EGOERAREN INGURUKO PERTZEPZIOA (LEHEN, ORAIN ETA ETORKIZUNEAN) 104	
10.2	ETORKIZUNEKO ERREALITATE LINGUISTIKOAREN DESIRA (ETORKIZUNEAN NOLA HITZ EGITEA NAHIKO ZENUKE)	109
10.3	DISKRIMINAZIO EGOERAK PAIRATU IZANAREN PERTZEPZIOA	110
10.4	ADMINISTRAZIO EZBERDINEN HIZKUNTZA POLITIKAREN GAINEKO BALORAZIOA	111
10.5	GAI EZBERDINEKIKO IRITZIA	115
11	I.ERASKINA: GALDESORTA	123
12	II.ERASKINA: TAULA GURUTZATUAK	Errorea! Laster-marka definitu gabe.60

1 SARRERA

Esku artean duzun txosten hau Arabako Foru Aldundiko Euskararen Foru Zerbitzuaren eskariz, Aztiker Soziologia Ikerguneak egindako lana da.

2014-2017 Plan Estrategikoa martxan da. Bertan, euskararen normalizazioaren bidean, lan eremuak zehaztu (1. Gazteak, aisia eta kirola, 2. Helduen euskalduntzea, 3. Kulturgintza, 4. Arlo sozioekonomikoa, 5. Familia transmisioa eta irakaskuntza, 6. Komunikabideak eta IKT eta 7. Administrazioa) eta hainbat helburu eta azpi-helburu ezartzen dira. Plan Estrategikoaren ildo ezberdinen garapenerako eta ebaluaketa jarraitako lagungarria izan nahi du lan hau eta horretarako inkesta lan honen bidez arabarren euskara ezagutza, esparru ezberdinetan euskara erabiltzeko zein aukera dauden eta zein erabilera egiten den eta orokorrean euskararen inguruan zein jarrera duten aztertu da.

Horretarako, Arabako 1.175 herritar inkestatu ditugu. Erabilitako metodologiaren berri ematen duen atalean ikus daitekenez, Arabako herritarren lagin erakusgarriaren bidez, arabarren eta haien inguru sozialaren gaineko informazio ugari eta oparoa bildu ahal izan dugu, beti ere euskararekin harremanean. Lan horren guztiaren emaitza da aurkezten ari garen txosten hau.

Txostenaren edukia 8 atal nagusitan banatu dugu. Lehen atalean, arabarren euskara ezagutza aztertu dugu: arabarren hizkuntza gaitasuna bere dimentsio ezberdinetan xehetuta eta arreta bereziz aztertu dugu euskararen irabaziak eta galerak (BILA indizea) nolakoak izan diren. Bigarren atalean, berriz, Paula Kasaresek proposatutako terminologia jarraituz, hizkuntza sozializazioa aztertu dugu. Horrela, atal honetan ageri dira euskara zein bideetatik jaso duten elebidunek. Lehenik familia bidezko sozializazioa aztertu dugu, gurasoen eta seme-alaben gaitasunak aintzat hartuta, eskola bidezko sozializazioa ondoren eta helduen euskalduntzerako dauden agenteen bidezkoa azkenik (euskaltegiak, hizkuntza eskola, udaleko guraso taldeak eta mintzalagun).

Hirugarren atalak arabarrek esparru ezberdinetan elebidunen presentziaren inguruko hautemateak biltzen ditu, baita eremu horietan egiten duten euskara erabilera ere. Bi horiek gurutzatuz, bata bestean eduki dezakeen eragina ere aztertu dugu atal honetan.

Hurrengo lau ataletan, laugarrenean, bostgarrenean, seigarrenean eta zazpigarrenean, Plan Estrategikoan aipatzen diren hainbat eremu zehatz aztertu ditugu, zehazki, gazteak, aisia eta kirola, kulturgintza eta komunikabideak eta IKTak.

Eta, azkenik, zortzigarren atalean, arabarrek euskararen egoeraren eta bere biziberritzerako eskuhartze ezberdinen inguruko iritziak bildu ditugu.

Ikerketa hau Araban euskararen normalizazioan lan egiten duten agente guztientzat lagungarria eta hausnarketa partekatua errazteko baliagarria izan dadila, horixe da gure desioa.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu ikerketaren parte izan diren herritar inkestatu guztiei. Batetik, haien ekarpenik gabe ezinezkoa litzatekeelako halako lanik egitea, eta, bestetik, eman diguten informazioa oso baliagarria izan delako. Mila esker, zinez, guztiei.

2 METODOLOGIA OHARRAK

FITXA TEKNIKOA (LABURPENA)

Unibertsoa: Araban bizi diren 16 urtetik gorako herritarrak (**272.540** lagun).

Lagina: **1.175** elkarrizketa Araba osoan (389 Vitoria-Gasteizen, 381 Aiaran eta 405 Lur Jareetan).

Landa-lana: 2015eko azaroaren 2tik 19ra egin zen. Elkarrizketak euskaraz zein gaztelaniaz egin dira, elkarrizketatuen nahiaren arabera, etxeetara telefonoz deituz.

AKATS TARTEAREN KALKULUA (erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria):

Arabako datuentzat: $\pm\%2,9$ lagin osoarentzat, % 95,5eko konfiantza mailan, eta $p=q=\%50,0$ hipotesirik kontrakoarentzat.

Gasteizko datuentzat: $\pm\%5,1$ lagin osoarentzat, %95,5eko konfiantza mailan, eta $p=q=\%50,0$ hipotesirik kontrakoarentzat

Aiarako datuentzat: $\pm\%5,1$ lagin osoarentzat, %95,5eko konfiantza mailan, eta $p=q=\%50,0$ hipotesirik kontrakoarentzat

Lur Jareetako datuentzat: $\pm\%4,9$ lagin osoarentzat, %95,5eko konfiantza mailan, eta $p=q=\%50,0$ hipotesirik kontrakoarentzat

A. IKERKETA TEKNIKA

Arabako 16 urtetik gorako herritarrei telefono bidezko elkarrizketak egin dizkiegu, egituratutako galdetegiaren bitartez.

B. UNIBERTSOA, LAGINA ETA AKATS TARTEAREN KALKULUA

- **UNIBERTSOA:** elkarrizketa egin zen unean Araban bizi ziren 16 urtetik gorako **272.540** herritarrak (iturria: INE, 2014ko erroldako datuak).
- **LAGINAREN TAMAINA: 1.175.**
- **Akats tartearen estimazioa** (erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria, %95,5eko konfiantza mailan eta $p=q=\%50,0$ denerako):
 - Araba osorako $\pm\%2,9$.
 - Gasteizko koadrila $\pm\%5,1$
 - Aiarako koadrila $\pm\%5,1$
 - Lur Jareak (Kanpezu, Biasteri, Zuia, Agurain eta Añanako koadrilak) $\pm\%4,9$

C. GALDETEGIAK

Aztertu nahi genituen gaien inguruko galderekin osatu dugu galdera-sorta (ikus galdera-sorten eranskina). Galdera batzuk elkarrizketatu guztiei egin dizkiegu eta beste batzuk, berriz, alor bati (euskaldunei, erdaldunei, eta abar). Elkarrizketa batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz egin ditugunez, bi galdera-sorta izan ditugu, hizkuntzako bana.

D. LAGINKETA ETA LAGINAREN OSAKETA

❖ *Laginaren diseinua*

Lagina diseinatzerakoan hainbat urrats egin ditugu. Lehenik, Araba hiru lurralde eremutan banatu dugu: Gasteiz, Aiara eta Lur Jareak. Ereku bakoitzerako 400 inkestako laginak diseinatu ditugu. Ondoren, eremu bakoitzaren barruan, neurrien arabera banatu ditugu udalerriki, proportzionaliki. Adinari eta sexuari dagokionez, ordea, gutxieneko neurri batzuk ziurtatze aldera, kuotak ezarri ditugu, unibertsoarekiko proportzionalak.

Arabako emaitzak lantzeko garaian, noski, unibertsoko parametroen arabera haztatu ditugu jasotako erantzunak.

TAULA: LAGINAREN DISEINUA; UNIBERTSOA, LAGIN PROPORZIONALA, LAGIN TEORIKO DESOREKATUA ETA LAGIN ERREALA.

	UNIBERTSOA (N)	LAGIN PROPORZIONALA	LAGIN TEORIKO DESOREKATUA	LAGIN ERREALA
ARABARRAK 15+	272.540	1.200	1.200	1.175
LURRALDEA				
Gasteiz	205.464	905	400	389
Aiara	29.584	130	400	381
Lur Jareak	37.492	165	400	405

❖ *Laginketa*

Polietapikoa eta estratifikatua (udalerraren neurria aintzat hartuta) **udalerriki hautatu arte**. Ondoren, udalerriki bakoitzaren barruan **biztanlegoaren banaketaren arabera proportzionaliki hautatu da zein etxetara deitu**. Etxean elkarrizketatu beharreko pertsonak, azkenik, **sexuaren eta adinaren araberrako kuoten bidez** aukeratu ditugu.

❖ *Lagin errealak, azpi-laginak eta dagozkien akats tarteak*

Jarraian ageri den taulan, unibertsoak eta elkarrizketatu dugun laginaren osaera adierazi dugu, eremuaren, adinaren eta sexuaren arabera. Era berean, alor bakoitzaren kasuan, unibertsoa eta lagin horri dagokion akats-tartea adierazi dugu (%95,5eko konfiantza mailan, eta $p=q=50,0$ denerako¹).

TAULA: LAGIN ERREALA, AZPILAGINAK ETA DAGOZKIEN AKATS TARTEAK.

	UNIBERTSOA (N)	LAGIN ERREALA (n)	AKATS TARTEA (% 95,5eko konfiantza mailan eta $p=q=50,0$ izanik)
ARABARRAK	272.540	1.175	±%2,9
Eremua			
Gasteiz	205.464	389	±%5,1
Aiara	29.584	381	±%5,1
Lur Jareak	37.492	405	±%4,9
Sexua			
Emakumea	138.372	603	±%4,1
Gizona	134.168	572	±%4,2
Adina			
16-30 urte	45.740	170	±%7,7
31-45 urte	74.579	326	±%5,5
46-64 urte	90.832	403	±%5,0
65 edo + urte	61.389	276	±%6,0

¹ Akats-tartea kalkulatzeko aplikatu dugun formula erabat ausazkoak diren laginketei da egogarrria.

E. LANDA LANA

- **LANDA LANA:** laginean aukeraturiko pertsonen etxeetan egin ditugu elkarrizketak telefonoz, **2015eko azaroaren 2tik 19ra** (biak barne).

F. EMAITZEN HAZTAKETA

Emaitzak 2014ko erroldako datuen arabera haztatu dira, Arabako hiru eremuetako unibertso osoaren adina eta sexua kontuan hartuta.

G. SAILKAPENAK ETA BERKODETZEAK (I): 0 ETA 10 BITARTEKO ESKALETAN OINARRITUTAKO GALDEREN EMAITZEN SAILKAPENA

Zenbait galderatan, erantzuteko eskala bat eman diegu inkestatuei, hainbat itemi 0 eta 10 bitarteko puntuaketa eman ziezaioten. Datuak aurkezterakoan, batzuetan batez besteko emaitzak aurkeztu ditugu. Beste batzuetan, berriz, maiztasunak aurkezteko garaian, honela bildu ditugu erantzunak:

Jatorrizko galdera-zenbakia galdera-sortan	
	71.galdera Administrazio desberdinen hizkuntza politikaren gaineko balorazioa
0	Oso eskasa (0-2)
1	
2	
3	Eskasa (3-4)
4	
5	Erdipurdikoa (5)
6	Egokia (6-7)
7	
8	Oso egokia (8-10)
9	
10	

• **Iritzi eta balorazioen ataleko indizeen kalkulua**

Galdera sortako hainbat galderatan, euskararen inguruko esaldi batzuekiko adostasuna adierazteko eskatu zaie. Esaldiekiko iritzia zenbaki bakarrean laburbiltzeko, adostasun indizea sortu dugu, honako formula hau erabiliz.

*Esaldi bakoitzarekiko adostasun indizea = "Gutziz konforme" azaldu direnen %a + (0,5 * "nahiko konforme" azaldu direnena) - (0,5 * "Nahiko kontra" azaldu direnen %a) - "Gutziz kontra" azaldu direnena.²*

Ikus dezagun adibide baten bidez. Taula honetan, "Euskara arabar guztien hizkuntza da, ez da inoren jabegoa" esaldiarekiko elkarrizketatuek emandako erantzunak biltzen dira:

Gutziz konforme	22,5
Nahiko konforme	20,3
Ez alde, ez kontra	13,3
Nahiko kontra	23,2
Gutziz kontra	20,7
Guztira	100,0
Kasu kopurua (n)	1149

²Indizea borobilduta eman dugu eta euskararen egoeraren inguruko galderei dagokienez, "ona", "txarra", "hobea" eta "okerragoa" izan dira pisuaren erdia eman diegunak.

Eta hona hemen adostasun indizearen kalkulua:

$$\text{Indizea} = (22,5 + (0,5 * 20,3) - (0,5 * 23,2) - 20,7)/10 = 0.035$$

Hala, indizea interpretatzeko -10 baliotik 10era arteko eskalan kokatu behar dugu, balioa positiboa izanik aldeketasuna adieraziko duen bitartean, balio negatiboak kontraketasuna azalduko duelarik. Zenbat eta balio altuagoa izan, ordea, kontraketasun edo aldeketasun horren intentsitatea agertuko du.

H. SAILKAPENAK ETA BERKODETZEAK (II): ALDAGAI INDEPENDENTEETARAKO

Inkestan egindako jatorrizko galdera-erantzunetan oinarrituta, hainbat berkodezte landuko ditugu bai txosten nagusian zehar bai II. eranskinean, hainbat aldagai independenteren arabera, inkestaren emaitzak sailez sail aurkezten ditugunean. Beraz, jarraian doaz aldagai independenteen aurkezpena eta horien inguruko azalpenak (holakorik behar den kasuetan).

❖ ALDAGAI SOZIODEMOGRAFIKOAK

SEXUA

- Emakumea
- Gizona

ADINA

- 16-30 urte
- 31-45 urte
- 46-64 urte
- 65 edo + urte

LURRALDEAK

- Gasteiz
- Aiara
- Lur Jareak

UDALERRI TAMAINA

- 5.000 biztanle edo gutxiago.
- 5.001 biztanle edo gehiago.
- Hiriburua (Vitoria-Gasteiz).

IKASKETA MAILA

- Oinarrizkoak edo batere ez
- Ikasketa ertainak
- Goi mailako ikasketak

Sailkapen hau, galdera-sortako 72. galderan oinarritzen da. Zehazki, eta azpi-laginen gutxieneko neurriak ziurtatze aldera, honela berkodeatu ditugu jatorrizko erantzunak:

72. galdera (ikasketa maila)	Aldagai berkodetua
Batere ez	Oinarrizkoak edo batere ez
Lehen mailakoak/OHO	
Oinarrizko Batxilergoa / (DBH)	
Lanbide Heziketa 1 (LH1)	
Lanbide Heziketa 2 (LH2) / Bigarren gradu ikasketak	Ikasketa ertainak
Goi mailako batxilergoa	
BBB / UBI / LOGSE batxilergoa	
Hizkuntzak	
Goi Mailako Lanbide Heziketa (ingeniaritzak eta arkitekto tekn.)	Goi mailako ikasketak
Erdi-Goi mailako ikasketak (diplomaturak)	
Goi ikasketak (lizentziaturak)	
Doktoretza/ masterrak	

JARDUERA NAGUSIA

- Autonomoa, kooperatibista
- Besteren kontura
- Langabezian
- Etxeko lanak
- Ikaslea
- Erretiratua, pentsioduna

Sailkapen hau, galdera-sortako 73.galderan oinarritzen da. Zehazki, eta azpi-laginen gutxieneko neurriak ziurtatze aldera, honela berkodetu ditugu jatorrizko erantzunak:

73. galdera (jarduera nagusia)	Aldagai berkodetua
Bere kontura ari da lanean	Autonomoa, kooperatibista
Kooperatibista da	
Besteren kontura ari da lanean	Besteren kontura
Langabea da	Langabezian
Ikaslea da	Ikaslea
Ikaslea da, eta lanean ere ari da	
Etxeko lanetan aritzen da	Etxeko lanak
Pentsionista da	Erretiratua, pentsioduna
Bestelakoak	

JATORRIA (NORBERE ETA GURASOEN JATORRIAREN SAILKAPEN SINTETIKOA)

Sailkapen hau galdera-sortako 74., 75. eta 76. galderetan oinarritzen da. Jatorriaren gaia konplexua da, norbere jatorriaz gain guraso zein aurrekoen jatorri geografikoa ere aldagai garrantzitsuak izan baitaitezke arabarren euskara ezagutza eta erabilera, zein iritzi, jarrera eta jokabideak azaltzeko. Horren jakitun, eta inkestatuaren beraren eta gurasoen jatorria kontuan hartuta, inkestatuak honako kategoria hauetan multzokatuz **Jatorriaren sailkapen sintetikoa** sortu dugu:

- Norbera eta gurasoak Euskal Herrian jaioak
- Norbera Euskal Herrian jaioa, gurasoetako bat Espainian.
- Norbera Euskal Herrian jaioak, bi gurasoak Espainian.
- Norbera Espainian jaioa
- Norbera munduko beste toki batean jaioa

❖ ALDAGAI SOZIOLINGUISTIKOAK**GURASO TIPOLOGIA**

Sailkapen honetarako 4.galderan amak eta aitak euskaraz dakiten (edo zekiten) galdetu diegunean ongi edo nahiko ongi erantzun dutenetan jo ditugu elebiduntzat. Bi hauen konbinaziotik hizkuntza gaitasunari dagokion **gurasoen tipologia** zehaztu dugu.

- Bi gurasoak elebidunak
- Gurasoetako bat elebiduna
- Bi gurasoak erdaldunak

LEHEN HIZKUNTZA

Galdera-sortako 3.galderan zehaztu bezala, haurtzaroan, 3 urte bete arte, etxean izan duten lehen hizkuntzari buruz galdetu diegu eta erdara kategorian euskara ez diren aukera guztiak sartu ditugu (gaztelania edo beste hizkuntza bat, alegia).

- Euskara
- Euskara eta erdara
- Erdara

ESKOLA HIZKUNTZA EREDUA

- X eredia (dena erdaraz)
- A eredia (euskara ikasgai gisa)
- B eredia (euskaraz eta gaztelaniaz)
- D eredia (erdara ikasgai gisa)

77.galderan oinarritzen da honako sailkapena. 50 urtetik gorako guztiei X eredia egotzi diegu haiena eskola hizkuntza ereduaren aurretiko eskolaratzea izan zela ontzat joz.

EUSKARAZKO HIZKUNTZA GAITASUNA

- Erdaldunak
- Elebidun hartzaileak
- Elebidunak. Eta horien barruan:
 - Erdal elebidunak
 - Elebidun orekatuak
 - Euskal elebidunak

Sailkapen hau galdera-sortako 1. galderan oinarritzen da. Izan ere, herritarrek euskaraz dakiten jakiteko eta zer nolako ezagutza duten jakiteko, galdera bat baino gehiago txertatu dugu galdera-sortan. Zehazki, euskaraz ulertzeko, hitz egiteko, idazteko eta irakurtzeko gaitasunari buruzko galderak egin dizkiegu elkarrizketatuei, zentsuetan erabiltzen den galdera eredia erabiliz. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egin ohi dituen Soziolinguistikazko Inkestetan ohikoa den galdera ere egin diegu euskaldunei: euskaraz ala gaztelaniaz, zein hizkuntzatan moldatzen diren hobeto hitz egiterakoan (2.galdera).

Informazio horretan oinarrituta, aldagai bakarrean bildu dugu hizkuntza gaitasunaren inguruko informazioa. Azkenean, eta zentsuetan eta Soziolinguistikazko Inkestetan erabili ohi diren sailkapen irizpideak kontuan hartuta, honako kategorietan sailkatu ditugu herritarrak, euren hizkuntza-gaitasunari erreparatuta:

- **Erdaldunak:** ez dute euskara ulertzen eta ez dute hitz egiten.
- **Elebidun hartzaileak:** euskara nekez edo ongi ulertzen dute, baina ez dute hitz egiten edo nekez hitz egiten dute.
- **Elebidunak:** euskara ondo ulertzen dute eta ondo hitz egiten dute. Horien barruan, halaber, honako multzoak egin ditugu (errazago zein hizkuntzatan moldatzen diren kontuan izanda, euskaraz ala gaztelaniaz):
 - **Erdal elebidunak:** euskaraz hitz egiteko gai dira, baina gaztelaniaz errazago mintzatzen dira, euskaraz baino.
 - **Elebidun orekatuak:** euskaraz zein gaztelaniaz, berdintsu moldatzen dira bietan.
 - **Euskal elebidunak:** euskaraz errazago hitz egiten dute, gaztelaniaz baino.

ETXEKO ELEBIDUN DENTSITATEA

Inkestatuarekin bizi diren 2 urtetik gorako kide guztien hizkuntza gaitasuna kontuan hartuta, etxeke elebidun dentsitatea zenbatekoa den kalkulatu dugu. Etxe horretako kide kopuruaren gaineko portzentajea aterata, aldagai berri batean birkodetu dugu, honako tarteak zehaztu ditugularik:

- Denek dakite euskaraz: %100.
- Erdiek baino gehiagok dakite euskaraz: %51tik %99ra bitartean.
- Erdiek dakite euskaraz: %50.
- Erdiek baino gutxiagok dakite euskaraz: %1etik %49ra bitartean.
- Inork ez daki euskaraz: %0.

ETXEKO ERABILERA OROKORRA

Etxeko erabilera orokorra kalkulatzeko, gaiari buruz inkestan jasotako zortzi galderaren emaitzak hartu dira kontuan. Galderok bakarrik bizi ez diren inkestatu elebidun edo elebidun hartzaileek besterik ez dituzte erantzun eta horrez gain, eurekin bizi diren kide elebidun edo elebidun hartzaileekin izaten dituzten elkarrizketei buruz galdetu diegu soilik.

Alde batetik, etxean bizi diren kideen artean gertatzen diren elkarrizketak izan ditugu kontuan. Hala, inkestatua elebiduna edo elebidun hartzailea denean bera bizi den etxean bizi diren gainerako kide elebidun edo elebidun hartzaile bakoitzarekin erabiltzen duen hizkuntzari buruz galdetu zaio, alde aurretik hauek elebidunak ziren galdetu diogu eta. Eta bestetik, kide guztiak elkarrekin daudenean gehien erabiltzen duten hizkuntza zein den.

Horrela, elebidun edo elebidun hartzaileen arteko **elkarrizketa mota kopurua** eskuratu dugu galdera hauetatik (inkestatua amarekin edo inkestatua neba-arrebekin). Ondoren, bazegoenean, zein hizkuntzatan garatzen zen galdetuta, emandako erantzun bakoitzari balio bat eman diogu eta etxean bizi den gainerako kide erdaldun bakoitzarekiko elkarrizketei %0 balioa (dena erdaraz) esleitu diogu. Honakoak izan dira emandako erantzunei eman diegun balioa:

- Beti euskaraz aritzen direla diotenean %100eko balioa eman diogu elkarrizketa mota horri.
- Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago: %75ekoa.
- Euskaraz gaztelaniaz bezain beste: %50ekoa.
- Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago: %25ekoa.
- Beti gaztelaniaz: %0.

Bestetik, etxeke kide guztiak elkarrekin daudenean zein hizkuntza gailentzen den galdetu diegu eta erantzun honi balio bera eman diogu. Erabilera orokorra kalkulatzeko elkarrizketa guztien batura egin dugunean, baina, azken aldagai honi pisu gehiago eman diogu (%50). Izan ere, ...

Hortaz, erabilera orokorra kalkulatzeko, etxe bakoitzean dauden elkarrizketa mota kopuru totalaren gaineko euskararen erabilera portzentajeari %50eko pisua eman diogu eta denek batera egiten duten erabileraren portzentajeari beste %50.

Zehazki, honako pisu hau eman zaio galdera bakoitzari aldagai birkodetu berria sortzerakoan, eta taulan aipatzen den balioa eman zaio kategoria bakoitzari:

Jatorrizko galdera	Galdera bakoitzari eman diogun pisua etxeko erabilera orokorra kalkulatzera	Erantzun posible bakoitzari eman diogun balioa
Nola hitz egiten duzue etxean zuen artean denok elkarrekin zaudetenean?	%50	·Beti euskaraz: %100 ·Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago: %75.
Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure eguneroko bizimoduan zure senarrarekin / emaztearekin / bikotekidearekin?	%50	·Euskaraz gaztelaniaz bezain beste: %50. ·Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago: %25.
Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure eguneroko bizimoduan seme-alabekin?		·Beti gaztelaniaz: %0.
Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure eguneroko bizimoduan amarekin?		
Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure eguneroko bizimoduan aitarekin?		
Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure eguneroko bizimoduan neba-arrebekin?		
Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure eguneroko bizimoduan aiton-amonekin?		
Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure eguneroko bizimoduan etxeko beste kideekin/ zaintzailearekin?		

ETXEKO HIZKUNTZA

- Euskara
- Euskara eta erdara
- Erdara

Etxeko erabilera aldagaian oinarrituta, aldagai aske gisa erabili behar dugunerako, etxeko hizkuntza aldagaia sortu dugu, eta honako hiru kategorietan laburtu dugu etxeko hizkuntza nagusiaren araberako banaketa:

- Euskara: Etxeko hizkuntza nagusia euskara (etxeko erabilera orokorra %70etik gorakoa denean).
- Euskara eta erdara: Etxeko hizkuntzak biak (etxeko erabilera orokorra %30etik %70era bitartean dagoenean).
- Erdara: Etxeko hizkuntza nagusia erdara (etxeko erabilera orokorra %30etik beherakoa denean).

HIZKUNTZA BILAKAERAREN TIPOLOGIA (BILA) ³

Biztanleriaren hizkuntza bilakaera zer-nolakoa izan den aztertzeko lehen hizkuntza eta hizkuntza gaitasuna gurutzatzean oinarritutako tipologia da honakoa. Gurutzatze horretatik eratorritako kategoriak 15 badira ere, azterketa egiteko 7tan bildu dira, norbanakoaren hizkuntza garapenak izan ditzakeen aukerak islatzen dituztenak. Honako kasu honi dagokionez, taldeak ezartzen dira

³ Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak finkatutako sailkapena

hiztunak euskaraz zein mailatan dakien kontuan hartuta, eta beste irizpide bat da ea hiztun horrek euskara izan zuen, bakarrik edo gaztelaniarekin batera, lehen hizkuntza. Beraz, lehen hizkuntza euskara duenak baliteke gordetzea edo galtzea, osorik edo zati bat, eta euskara ez badu lehen hizkuntza, baliteke ikastea, osorik edo zati bat, edo ez ikastea.

1. **Euskaldun zaharrak:** Lehen hizkuntza euskara izan eta euskaraz «ondo» ulertu eta hitz egiten duten pertsonak.
2. **Jatorrizko elebidunak:** Lehen hizkuntza euskara eta gaztelania izan eta euskaraz «ondo» ulertu eta hitz egiten duten pertsonak.
3. **Euskaldun berriak:** Lehen hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz «ondo» ulertu eta hitz egiten duten pertsonak.
4. **Elebidun hartzaile berriak⁴:** Lehen hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz «nekez» hitz egin edo, hitz egiten ez badute ere, «ondo» ulertu eta irakurtzen duten pertsonak.
5. **Partzialki erdaldunduak:** Lehen hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izan eta euskaraz «nekez» hitz egin edo, hitz egiten ez badute ere, «ondo» ulertu eta irakurtzen duten pertsonak.
6. **Gutziz erdaldunduak:** Lehen hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izan eta euskaraz ez hitz egin, ezta «ondo» ulertu ez irakurri ere egiten ez duten pertsonak.
7. **Erdaldun zaharrak:** Lehen hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz ez hitz egin, ezta «ondo» ulertu ez irakurri ere egiten ez duten pertsonak.

ETXEKO HIZKUNTZAREN ERABILERAREN TIPOLOGIA (ERABIL)

Biztanleriaren hizkuntza jarduera maila neurtzeko hizkuntza bilakaeraren tipologia laburtuaren eta etxeko hizkuntza gurutzatzean oinarritutako tipologia dugu. Gurutzatze horretatik eratorritako kategoriak 36 badira ere, azterketa eraginkorra izan dadin, 15etan bildu dira. Hala bada, ERABIL indizeko taldeak izango dira BILA indizeko berberak, baina hiru bider, etxean gehienetan erabiltzen duten hizkuntzaren (euskara, euskara eta gaztelania, edo gaztelania) arabera biderkatuko baititugu. Alde batera utziko ditugu erdaldundutakoak eta erdaldun zaharrak, ez baitakite euskaraz, eta beraz, gaztelaniaz baino ezin dute jardun.

1. **Euskaldun zahar aktiboak:** Lehen-hizkuntza euskara izan eta euskaraz «ondo» ulertu eta hitz egin, eta etxeko hizkuntza euskara duten pertsonak.
2. **Euskaldun zaharrak bietan aktiboak:** Lehen-hizkuntza euskara izan eta euskaraz «ondo» ulertu eta hitz egin, eta etxeko hizkuntza euskara eta gaztelania duten pertsonak.
3. **Euskaldun zahar pasiboak:** Lehen-hizkuntza euskara izan eta euskaraz «ondo» ulertu eta hitz egin, eta etxeko hizkuntza gaztelania duten pertsonak.
4. **Jatorrizko elebidun aktiboak:** Lehen-hizkuntza euskara eta gaztelania izan eta euskaraz «ondo» ulertu eta hitz egin, eta etxeko hizkuntza euskara duten pertsonak.
5. **Jatorrizko elebidunak bietan aktiboak:** Lehen-hizkuntza euskara eta gaztelania izan eta euskaraz «ondo» ulertu eta hitz egin, eta etxeko hizkuntza euskara eta gaztelania duten pertsonak.
6. **Jatorrizko elebidun pasiboak:** Lehen-hizkuntza euskara eta gaztelania izan eta euskaraz «ondo» ulertu eta hitz egin, eta etxeko hizkuntza gaztelania duten pertsonak.
7. **Euskaldun berri aktiboak:** Lehen-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz «ondo» ulertu eta hitz egin eta etxeko hizkuntza euskara duten pertsonak.

⁴ HPSren izendapenean “Partzialki euskaldun berriak”

8. **Euskaldun berriak bietan aktiboak:** Lehen-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz «ondo» ulertu eta hitz egin, eta etxeko hizkuntza euskara eta gaztelania duten pertsonak.
9. **Euskaldun berri pasiboak:** Lehen-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz «ondo» ulertu eta hitz egin, eta etxeko hizkuntza gaztelania duten pertsonak.
10. **Elebidun hartzaile berri aktiboak:** Lehen-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz «nekez» edo hitz egiten ez badute ez, «ondo» ulertu eta irakurri, eta etxeko hizkuntza euskara duten pertsonak.
11. **Elebidun hartzaile berriak bietan aktiboak:** Lehen-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz «nekez» edo hitz egiten ez badute ere, «ondo» ulertu eta irakurri eta etxeko hizkuntza euskara eta gaztelania duten pertsonak.
12. **Elebidun hartzaile berri pasiboak:** Lehen-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz «nekez» edo hitz egiten ez badute ere, «ondo» ulertu eta irakurri eta etxeko hizkuntza gaztelania duten pertsonak.
13. **Partzialki erdaldundu aktiboak:** Lehen-hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izan eta euskaraz «nekez» hitz egin edo, hitz egiten ez badute ere, «ondo» ulertu eta irakurri, eta etxeko hizkuntza euskara duten pertsonak.
14. **Partzialki erdaldunduak bietan aktiboak:** Lehen-hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izan eta euskaraz «nekez» hitz egin edo hitz egiten ez badute ere, «ondo» ulertu eta irakurri, eta etxeko hizkuntza euskara eta gaztelania duten pertsonak.
15. **Partzialki erdaldundu pasiboak:** Lehen-hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izan eta euskaraz «nekez» hitz egin edo, hitz egiten ez badute ere, «ondo» ulertu eta irakurri, eta etxeko hizkuntza gaztelania duten pertsonak.

I. TXOSTENGINTZA ETA ERABILITAKO TERMINOAK

Euskaldun berriak terminoa oso zabaldua badago ere, hiztun berriak aldaera hobetsi dugu, euskaldun hitzaren lekuan elebidun erabili dugun arrazoi berberarengatik. Izan ere, euskalduntasunaren kontzeptuaren atzean egon litekeen ulerkera zabalagoa eta hizkuntza gaitasuna bereizi nahi izan ditugu modu honetara.

Lehen hizkuntza erabili dugu "ama" hizkuntza gisa ezaguna den kontzeptuaren ordez.


Paula Kasaresen proposamena jarraitzen saiatuz, transmisioa eta sozializazioa gauza ezberdinak direla ulertuta, hizkuntzaren sozializazioaz jardun gara. Hala, hizkuntza bat goitik behera jasotzen dela iradokitzen duen kontzeptua, transmisioarena, alegia, alboratu nahi izan dugu.

3 HIZKUNTZA GAITASUNA

3.1 BIZTANLERIA HIZKUNTZA GAITASUNAREN ARABERA

Hitz egin


	Maiztasuna	Ehunekoa
Ongi	207	17,6
Nahiko ongi	66	5,6
Zertxobait	137	11,6
Hitz batzuk	140	11,9
Ezer ez	626	53,3
Guztira	1.175	100,0



Arabako 16 urtetik gorako biztanleriaren erdiak baino gehiagok ez du euskaraz hitz egiten eta ia laurden bat (%23,2) da ongi edo nahiko ongi hitz egiten duena. Beste horrenbestek zertxobait edo hitz batzuk egiten ditu.

Ulertu


	Maiztasuna	Ehunekoa
Ongi	228	19,4
Nahiko ongi	85	7,3
Zertxobait	137	11,7
Hitz batzuk	149	12,7
Ezer ez	576	49,0
Guztira	1.175	100,0



Ulermen maila hitz egiteko gaitasunaren gaintik dago, batez ere, ongi edo nahiko ongi kategorietan, eta ezer ulertzen ez dutenak lau puntu gutxiago dira.

Irakurri


	Maiztasuna	Ehunekoak
Ongi	217	18,5
Nahiko ongi	72	6,2
Zertxobait	98	8,3
Hitz batzuk	101	8,6
Ezer ez	687	58,4
Guztira	1.175	100,0



Irakurtzeko gai direnak hitz egiteko gai direnak baino gehiago badira ere, ulermen mailaren azpitik daude portzentajeak. Zertxobait eta hitz batzuk irakurtzeko gai direnen kopuruak behera egiten du eta ondorioz, euskaraz ezer irakurtzeko gai ez direnak gehiago dira.

Idatzi


	Maiztasuna	Ehunekoak
Ongi	203	17,3
Nahiko ongi	67	5,7
Zertxobait	99	8,4
Hitz batzuk	98	8,3
Ezer ez	709	60,3
Guztira	1.175	100,0



Idazteko gai ez direnen portzentajea dugu lau trebetasunen artean altuena, hitz egiteko ongi edo nahiko ongi moldatzen direnen alboan, ordea, idazteko gai direnen kopurua altuxeagoa da.

Hizkuntza gaitasuna

	Maiztasuna	Ehunekoak
Erdalduna	720	61,3
Elebidun hartzailea	183	15,5
Elebiduna	273	23,2
Guztira	1.175	100,0




Arabako 16 urtetik gorakoen gehiengoa (%61,3) erdalduntzat jo dezakegu eta Araban ofizialak diren bi hizkuntzatan jarduteko gai direnak ia laurdena (%23,2). Gainerakoak hitz egin edo idazteko gai ez diren arren, nolabaiteko ulermen maila duten elebidun hartzaileak ditugu.

3.2 ELEBIDUNEN SAILKAPENA EUSKARAZ EGITEKO DUTEN ERRAZTASUNAREN ARABERA (ELEBIDUN OREKATUAK EDO EUSKAL ETA ERDAL ELEBIDUNAK)

Zein hizkuntzatan moldatzen da errazago


	Maiztasuna	Ehunekoa
Gaztelaniaz errazago	202	74,2
Berdin euskaraz zein gaztelaniaz	54	19,6
Euskaraz errazago	17	6,2
Guztira	273	100,0



Bi hizkuntzatan ondo moldatzen direnei, hots, elebidunei errazago zeinetan egiten duten galdetuta, nabarmen altuagoa da gaztelaniaz hobeto moldatzen direnen kopurua (%74,2). 10etik 2 izango lirateke elebidun guztien artean bi hizkuntzatan berdin moldatzen direnak, elebidun orekatuak, alegia.

Hizkuntza gaitasuna

	Maiztasuna	Ehunekoa
Erdalduna	720	61,3
Elebidun hartzailea	183	15,5
Erdal elebiduna	202	17,2
Elebidun orekatua	54	4,6
Euskal elebiduna	17	1,4
Guztira	1.175	100,0




Erdaldunak kontuan hartuta, hortaz, 16 urtetik gorako arabarren hizkuntza gaitasunaren araberako sailkapena honakoa izango litzateke; erdaldunen ondotik, erdaraz hobeto moldatzen diren elebidunak leudeke (%17,2) eta ia parean elebidun hartzaileak (%15,5). Elebidun orekatu eta euskal elebidunen artean biztanleriaren %6 besterik ez lirateke izango.

3.3 HIZKUNTZA GAITASUNA HAINBAT ALDAGAIEN ARABERA

Hizkuntza gaitasuna adinaren arabera

	ADINA				Guztira
	16-30	31-45	46-64	65 edo +	
Erdalduna	12,4	46,7	76,1	91,8	61,3
Elebidun hartzailea	11,8	31,1	10,9	4,1	15,5
Erdal elebiduna	52,2	17,1	11,4	2,2	17,2
Elebidun orekatua	19,1	4,0	1,1	0,7	4,6
Euskal elebiduna	4,5	1,1	0,5	1,1	1,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	178	351	377	269	1.175




Hiztunak adinaren arabera banatuta aztertuz gero, adinean behera egin ahala erdaldunen kopuruak ere behera egiten duela ikus dezakegu, erdal elebidun, elebidun orekatu eta euskal elebidunekin gertatzen denaren kontrakoa.

Elebidun hartzaileen kasuan, aldiz, nahiz eta adinean gora egin ahala gutxiago izateko joera ematen den, gazteenen tartean hurrengo adin tartean baino gutxiago dira. Erdal elebidunen kopuruarekiko aldea handiena izanik, honen aldeko joera nagusitu izanari zor zaio.

Hau da, adin tarte gazteenean erdaldun kopururik baxuena eta elebidun kopururik altuena dugu, baina gainera, erdal elebidunak hazi dira eta elebidun hartzaileak gero eta gutxiago dira.

Gurasoen hizkuntzaren arabera

	Gurasoen hizkuntza			Guztira
	Bi gurasoak elebidunak	Gurasoetako bat elebiduna	Bi gurasoak erdaldunak	
Erdalduna	15,4	18,0	68,7	61,4
Elebidun hartzailea	18,5	16,0	15,3	15,5
Erdal elebiduna	29,2	36,0	14,5	17,1
Elebidun orekatua	21,5	27,0	1,2	4,5
Euskal elebiduna	15,4	3,0	0,4	1,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	65	100	1.008	1.173




Elebidun kopurua berbera da (bi heren) guraso biak ala gurasoetako bat elebiduna denean. Bi perfil hauen arteko desberdintasuna erraztasunaren araberako tipologian datza; euskaraz hobeto moldatzen direnen kopurua nabarmen altuagoa da bi gurasoak elebidunak direnen kasuan eta apalagoa bada ere, gurasoetako batek euskaraz ez dakienean erdal elebidunen portzentajea altuagoa da.

Era berean, bi gurasoak erdaldunak direnean, elebidunak diren seme-alaben artean erdal elebidunak dira nagusi. Kasu honetan azpimarratzekoa da guraso erdaldunak izanagatik ere, 16 urtetik gorako arabarren %16k bestela jaso dutela euskara.

Gurasoen hizkuntzak seme-alaben hizkuntza gaitasunean daukan garrantzia agerian geratzen da. Oro har, gurasoen hizkuntza gaitasuna zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da seme-alabena.

Lehen hizkuntzaren arabera

	Lehen hizkuntza				Guztira
	Euskara	Gaztelania	Euskara eta gaztelania	Beste hizkuntza bat	
Erdalduna	6,5	65,6	14,9	64,7	61,3
Elebidun hartzailea	10,9	15,1	29,8	17,6	15,6
Erdal elebiduna	28,3	16,8	14,9	17,6	17,2
Elebidun orekatua	32,6	2,1	36,2	0,0	4,6
Euskal elebiduna	21,7	0,4	4,3	0,0	1,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	46	1.065	47	17	1.175



Lehen hizkuntza euskara izan dutenen artean dago elebidun kopuru altuena eta zehazki euskal elebidunen kopururik altuena soilik euskara izan dutenen artean.

Gaztelania edo beste hizkuntza bat lehen hizkuntzatzat izan duten elebidunak, ordea, %20ko portzentajera ez dira iristen eta nagusiki erdal elebidunak dira.


Euskara eta gaztelania lehen hizkuntzatzat izan dituztenen artean %14,9k erdalduna izaten amaitu du eta euskara soilik izan dutenen artean ere bada %6,5 bat erdalduna dena.

Elebidun hartzaileen portzentaje altuena (%29,8) bere haurtzaroko lehen 3 urteetan bi hizkuntza ofizialak jaso dituztenen artean dugu, baina baita euskara soilik izan zutenen artean ere, portzentaje txikiagoan izan arren (%10,9).

3.4 HIZKUNTZA-BILAKAERAREN TIPOLOGIA

Hizkuntza-bilakaeraren tipologia ("BILA" indizea)

	Maiztasuna	Ehunekoa
Euskaldun zaharrak	38	3,3
Jatorrizko elebidunak	27	2,3
Hiztun berriak	205	17,7
Elebidun hartzaile berriak	161	13,9
Partzialki erdaldunduak	19	1,6
Erabat erdaldundutakoak	10	0,9
Erdaldun zaharrak	699	60,3
Guztira	1.158	100,0



Elkarrizketatuen hizkuntza gaitasuna lehen hizkuntzarekin harremanetan jarrita hiztunen galera eta irabaziak zein neurritan izan diren aztertzeko indizea kalkulatu dugu. Honen arabera, galera edo irabaziaren norabidea aztertzeko informazioa ematen duten hiztun tipologiak ditugu.

16 urtetik gorako arabarrak, elebidunak badira, etxeko errealitate linguistikotik harago modu batean edo bestean euskara bereganatu dutelako izan da (%17,7). Horrez gain, elebidun hartzaile berriak ere irabazi ditu Araban euskarak (%13,9). Hala ere, euskarara ezertxo ere hurbildu ez diren erdaldunak ditugu nagusiki (%60,3).

4 HIZKUNTZA SOZIALIZAZIOA


4.1 16 URTETIK GORAGOKOEN HIZKUNTZA SOZIALIZAZIOA

4.1.1 Familia bidezko sozializazioa

4.1.1.1 Gurasoen hizkuntza


Inkestatuen gurasoen hizkuntza

	Maiztasuna	Ehunekoa
Bi gurasoak elebidunak	65	5,6
Gurasoetako bat elebiduna	101	8,6
Bi gurasoak erdaldunak	1.009	85,9
Guztira	1.175	100,0



Inkestatuen gurasoen hizkuntza

	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Bi gurasoak elebidunak	6,6	15,8
Gurasoetako bat elebiduna	8,8	24,6
Bi gurasoak erdaldunak	84,6	59,6
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	182	272



■ Bi gurasoak elebidunak ■ Gurasoetako bat elebiduna ■ Bi gurasoak erdaldunak

16 urtetik gorako arabarren guraso biak erdaldunak dira nagusiki (%85,9) eta biak elebidunak dituztenen kopurua oso txikia da (%5,6).

Elebidunen kasuan, gurasoen osieran desberdintasuna ageri da, gehiago baitira bi gurasoak elebidunak dituztenak (%15,8) eta are gehiago bietako bat hala dutenak (%24,6).

4.1.1.2 Gurasoen hizkuntzaren bilakaera

Gurasoen hizkuntza inkestatuak 65 urtetik gora dituztenen

	Maiztasuna	Ehunekoa
Bi gurasoak elebidunak	15	5,4
Gurasoetako bat elebiduna	11	4
Bi gurasoak erdaldunak	245	90,6
Guztira	270	100

Gurasoen hizkuntza inkestatuak 46tik 64 urtera bitarte dituztenen


	Maiztasuna	Ehunekoa
Bi gurasoak elebidunak	25	7,8
Gurasoetako bat elebiduna	12	3,9
Bi gurasoak erdaldunak	283	88,3
Guztira	320	100

Gurasoen hizkuntza inkestatuak 26tik 45 urtera bitarte dituztenen

	Maiztasuna	Ehunekoa
Bi gurasoak elebidunak	14	3,8
Gurasoetako bat elebiduna	32	8,8
Bi gurasoak erdaldunak	318	87,4
Guztira	364	100

Inkestatuak eta hauen bikotearen hizkuntza gaitasuna 2 eta 25 urte bitarteko seme-alabaren baten guraso direnean

	Maiztasuna	Ehunekoa
Biak elebidunak	28	8,1
Bat elebiduna	67	19,4
Biak erdaldunak	252	72,5
Guztira	347	100




Gurasoen hizkuntza gaitasunaren bilakaera aztertzeko eta gaitasun orokorraren datuarekin konparatzeko, adinaren arabera banaketa egin dugu eta gaur egun 2 eta 25 urte bitarteko seme-alabak dituzten inkestatuak osatzen duten bikote mota gehitu dugu guraso berrienen datua aztertu ahal izateko.

Bi guraso erdaldunak osatutako bikoteen kopuruak behera egin du eta norabide berean, gurasoetako bat elebiduna den bikote tipologia mistoak zein biak elebidunak diren guraso bikoteak gora egin du, elebidun kopuruaren eta adinaren bilakaerarekin bat etorritik.

4.1.1.3 Arabarren lehen hizkuntza


Lehen hizkuntza

	Maiztasuna	Ehunekoak
Euskara	46	3,9
Euskara eta gaztelania	48	4,1
Gaztelania	1.064	90,6
Beste hizkuntza bat	17	1,5
Guztira	1.175	100,0



Lehen hizkuntza

	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Euskara	2,7	13,9
Euskara eta gaztelania	7,7	9,9
Gaztelania	88,0	75,1
Beste hizkuntza bat	1,6	1,1
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	183	273




Lehen hizkuntzat euskara izan dutenak oso gutxi dira, inkestaren %8. Hizkuntza gaitasunaren arabera aztertuta, elebidunen artean euskara jaso dutenen portzentajea 15 puntu gainera dago.

4.1.1.4 Lehen hizkuntzaren bilakaera


45 urtetik gorakoen lehen hizkuntza

	Maiztasuna	Ehunekoa
Euskara	26	4,1
Euskara eta erdara	16	2,5
Erdara	603	93,4
Guztira	646	100,0



25 eta 45 urte artekoen lehen hizkuntza


	Maiztasuna	Ehunekoa
Euskara	12	2,9
Euskara eta erdara	22	5,2
Erdara	386	91,9
Guztira	419	100,0




2 eta 25 urte arteko seme-alaben lehen hizkuntza

	Maiztasuna	Ehunekoa
Euskara	21	6,0
Euskara eta erdara	55	15,6
Erdara	276	78,3
Guztira	346	100,0

*n=2 eta 25 urte artean seme-alabaren bat edo gehiago dutenak



Lehen hizkuntzaren arabera banaketa adin tartean nola aldatzen den ikusita, haurtzaroko lehen 3 urteetan jasotzen direnak batez ere bi hizkuntza ofizialak izateko joera zabalduz doala ikus daiteke, baita euskararena modu apalagoan ere, gaztelania soilik izateari lekua kenduz.





Inkestatuaren lehen hizkuntza gurasoen hizkuntza gaitasunaren arabera

	Bi gurasoak elebidunak	Gurasoetako bat elebiduna	Bi gurasoak erdaldunak
Euskara	65,2	2,0	0,1
Euskara eta gaztelania	12,1	39,6	
Gaztelania	22,7	58,4	99,9
Guztira	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	66	101	992

2 eta 25 urte arteko seme-alaben lehen hizkuntza gurasoen hizkuntza gaitasunaren arabera

	Biak elebidunak	Bat elebiduna	Biak erdaldunak
Euskara	59,3	5,9	0,4
Euskara eta gaztelania	37,0	50,0	4,0
Gaztelania	3,7	44,1	95,6
Guztira	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	27	68	251




Lehen hizkuntza gurasoen hizkuntza gaitasunarekin harremanetan jarrita, bi aldagaien artean lotura argia dagoela baieztatu dezakegu. Izan ere, elebidunik ez dagoen kasuetan lehen hizkuntza gaztelania da eta euskara lehen hizkuntzatzat izan dutenen kopuru altuena bi gurasoak elebidunak diren kasuan ditugu (hiru laurdenak baino gehiago), gurasoetako bat bakarrik denean elebidun, ordea, %41,6ra jaisten da.

Hala ere, bi gurasoak elebidunak direnen artean ia laurden batek (%22,7) ez dio seme-alabari lehen hizkuntza gisa euskara transmititu, biak transmititu dizkieten gainetik.

Inkestatuak guraso direnean ere, ia kasu guztietan izan du euskara lehen hizkuntzatzat seme-alabak (%96,3) eta nabarmen jaisten da portzentajea gurasoetako bat erdalduna denean, %44,1aren lehen hizkuntza gaztelania delako kasu horretan.

Inkestatuaren gurasoen jarrera eta inkestatuak euren seme-alabekiko izan duten jarrera alderatuz gero, lehen hizkuntzen artean euskara izateko aldeotasuna hazi dela esan daiteke, eta honi eta gurasoen hizkuntza gaitasunaz gandi dauden eta hizkuntza sozializazioan eragiten duten beste faktore batzuei esker, lehen hizkuntza euskara dutenen kopurua hazi egin dela belaunaldi gazteen artean. Hala, guraso biak erdaldunak izanagatik ere, haurtzaroko lehen 3 urteetan gaztelaniaz gain euskara izan duten haurrik ere badago (%4,1).

	Maiztasuna	Ehunekoa
Euskaraz dakiten 2 eta 25 urte arteko seme-alabak	579	90,3
Euskaraz ez dakiten 2 eta 25 urte arteko seme-alabak	62	9,7
Guztira	641	100,0




2 eta 25 urte arteko seme-alabak dituztenei horietatik euskaraz zenbatek dakiten galdetuta, belaunaldi horien errealitate linguistikoa (gurasoen begietara, behintzat) nagusiki elebiduna dela baieztatu daiteke (%90,3).

4.1.2 Eskola bidezko sozializazioa

Hizkuntza eredia


	Maiztasuna	Ehunekoa
X eredia	737	62,8
A eredia	234	19,9
B eredia	56	4,7
D eredia	148	12,6
Guztira	1.175	100,0

*Eredurik ez zegoenean ikasitakoak X ereduaren barnean



Hizkuntza eredia

	Erdalduna	Elebidun hartzailea	Elebiduna
X eredia	82,9	47,0	20,1
A eredia	16,3	40,4	15,8
B eredia	0,7	8,2	12,8
D eredia	0,1	4,4	51,3
Guztira	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	720	183	273



16 urtetik gorako arabarren gehiengoak ez du euskara eskolan ikasi eta hala izan den kasuetan euskara ikasgai gisa ikasi du %20k. Soilik %12,6k ikasi du D ereduari euskaraz.


Erdaldunak diren arabarren gehiengoak ez du euskara eskolan ikasterik izan, baina %16,3k ikasgai gisa izanda ere, ez du hartzailea izateko besteko gaitasunik ere eskuratu.

Hartzaileen kasuan ere, nagusiki eskolan ikasi ez dutenak edo ikasgai gisa izan dutenak leudeke, baina baita B eta D ereduari ikasi duten batzuk ere (%12,6).

Elebidunen artean, berriz, D eredia da pisu gehien duena eta erdaraz ikasi duten arren, elebidunak direnak izango genituzke jarraian.


Lehen hizkuntza euskara izan ez dutenen hizkuntza eredia

	Maiztasuna	Ehunekoak
X eredia	701	64,8
A eredia	222	20,5
B eredia	48	4,4
D eredia	111	10,3
Guztira	1.082	100,0



Lehen hizkuntza euskara izan ez dutenen artean

	Erdalduna	Elebidun hartzailea	Elebiduna
X eredia	82,7	47,2	17,9
A eredia	16,5	40,5	18,4
B eredia	0,7	9,2	13,0
D eredia	0,1	3,1	50,7
Guztira	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	710	163	207




Gaztelania lehen hizkuntza izanda eta gaztelania hutsean ikasita elebidunak izateko D ereduan ikasi izanak du pisu handiena (%51,2). Bestalde, euskara eskola eta familia ez diren beste moduren batean bereganatu dutenen portzentaje altu samarra dugu (%17,9), elebidunak izan eta eskolan euskara ikasi ez dutenak eta lehen hizkuntza gisa ere izan ez dutenak, alegia.

Dena den, euskara lehen hizkuntzat izan ez dutenen artean D ereduko matrikulazioa da baxuena eta A ereduko altuena (ereduen artean).

Lehen hizkuntza euskara izan dutenen artean*

	Maiztasuna	Ehunekoa
X eredia	36	38,7
A eredia	12	12,9
B eredia	8	8,6
D eredia	37	39,8
Guztira	93	100,0


*Hauen artean daude euskara soilik eta euskara eta gaztelania lehen hizkuntza gisa izandakoak



Lehen hizkuntza euskara izan dutenen artean*

	Erdalduna	Elebidun hartzailea	Elebiduna
X eredia	100,0	42,1	27,7
A eredia	0,0	42,1	6,2
B eredia	0,0	0,0	12,3
D eredia	0,0	15,8	53,8
Guztira	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	10	19	65

*Hauen artean daude euskara soilik eta euskara eta gaztelania lehen hizkuntza gisa izandakoak



Matrikulazioa lehen hizkuntzaren arabera aztertuta, euskara izan ez dutenen ereduaren arabera banaketa arabar guztien banaketaren parekoa da (eurek baitira nagusi 16 urtetik gorako arabarren artean), baina lehen hizkuntza euskara izan dutenen artean D ereduaren matrikulazioa nabarmen hazten da B ereduarekin batera, A ereduarena jaisten den bitartean.

Ikus daitekeenez, lehen hizkuntza euskara izan dutenen matrikulazio datuen banaketa da elebidunen matrikulazio datuetatik hurbilen dagoena.

Lehen hizkuntza/Hizkuntza eredu/Hizkuntza gaitasuna. SINTESIA

		Erdalduna	Elebidun hartzailea	Elebiduna	Guztira
Euskara	X eredu	100,0	60,0	36,8	43,5
	A eredu	0,0	40,0	10,5	13,0
	B eredu	0,0	0,0	10,5	8,7
	D eredu	0,0	0,0	42,1	34,8
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0
Euskara eta gaztelania	X eredu	100,0	40,0	11,1	32,7
	A eredu	0,0	40,0	3,7	14,3
	B eredu	0,0	0,0	14,8	8,2
	D eredu	0,0	20,0	70,4	44,9
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0
Gaztelania	X eredu	82,4	46,3	18,0	64,6
	A eredu	16,7	41,3	18,5	20,8
	B eredu	0,7	9,4	12,2	4,2
	D eredu	0,1	3,1	51,2	10,4
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0
Guztira	X eredu	82,7	46,1	20,0	62,4
	A eredu	16,5	41,1	15,9	20,2
	B eredu	0,7	8,3	12,2	4,6
	D eredu	0,1	4,4	51,9	12,9
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0
		<i>709</i>	<i>180</i>	<i>270</i>	<i>1159</i>


Lehen hizkuntzat gaztelania soilik izan duten elebidun hartzaileek ez dute euskara eskolan ikasi (%46,3) edota ikasgai gisa izan dute (%41,3). Gaur egun elebidun direnen gehiengoak (%51,2) eskolan D ereduan ikasi du. Baina bada hauen artean eskolatik kanpo bereganatu duenik (%18) eta eskolan ikasgai gisa izanik ere elebidun denik (%18,5).

Eskolan euskara ikasi ez izan arren, elebidunak direnen portzentajerik altuena (%36,8) lehen hizkuntza gisa euskara soilik izan dutenen artean dugu.

4.1.3 Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea

4.1.3.1 Euskara eskolatik kanpo ikasi dutenak (non egin dutenaren arabera)


	Maiztasuna	Ehunekoa
Euskaltegian	153	73,1
Hizkuntza eskolan	16	7,5
Udaleko guraso talde batean	14	6,6
Mintzalagun	1	0,1
Beste	27	12,7
Guztira	211	100,0



Hizkuntzaren sozializazioa eskolatik kanpo egin dutenen artean gehiengoak (%73,1) euskaltegi batean ikasi du.

Eskolatik kanpo euskara ikasi dutenen hizkuntza eredua


	Maiztasuna	Ehunekoa
Ikasgai guztiak erdaraz (X eredua)	113	53,8
Euskara ikasgai gisa (A eredua)	59	28,1
Euskaraz eta gaztelaniaz (B eredua)	14	6,7
Erdara ikasgai gisa (D eredua)	24	11,4
Guztira	210	100,0



Eskolatik kanpo euskara ikasi dutenen artean, ordea, badira eskolan ere euskara ikasi dutenak, nagusiki ikasgai bezala izan dutenak (%28,1).


4.1.3.2 Euskara ikasten emandako denbora eta eskuratutako maila

	Maiztasuna	Ehunekoak
Ikasturte bat edo bi	92	43,7
Hiru edo lau ikasturte	73	35,0
5 eta 7 ikasturte artean	28	13,1
8 ikasturte edo gehiago	17	8,2
Guztira	210	100,0
Batez bestekoa (n)=210	3 urte eta lau hilabete	



Euskara ikasten emandako batez besteko denbora 3 urte eta lau hilabetekoa da, baina gehiengoak (%43,7) ikasturte bat edo bi eman ditu.

	Maiztasuna	Ehunekoak
A1 1-2 Urratsak	31	14,8
A2 3-4 Urratsak	20	9,5
B1 (5-6 Urratsak, 1.perfila)	53	25,1
B2 (7-8-9 Urratsak, 2.perfila edo Irakasleen-Ertzaintzaren 1	35	16,7
C1 (10-11-12 Urratsak, 3. Perfila, EGA)	52	24,9
C2 (4.perfila)	3	1,6
Ez daki	15	7,4
Guztira	210	100,0




Lortutako mailari dagokionez, euskalduntzearen lehen maila (1. perfila) izan da laurden baten kasuan eskuratutakoa eta beste laurden batena 3.maila (EGA).

Adierazgarria da zein maila eskuratu duen ez dakiela dioten portzentajea (%7,4).


4.1.3.3 *Euskara eskolatik kanpo ikasi dutenen hizkuntza gaitasuna*

	Maiztasuna	Ehunekoak
Erdalduna	57	27,1
Elebidun hartzailea	66	31,3
Erdal elebiduna	77	36,5
Elebidun orekatua	10	4,6
Euskal elebiduna	1	0,6
Guztira	210	100,0



Euskararen sozializazioa eskolatik kanpo egin dutenen artean %41,6 da gaur egun elebiduna.

	Hizkuntza gaitasuna			Total
	Erdalduna	Elebidun hartzailea	Elebiduna	
Ikasgai guztiak erdaraz (X eredua)	71,9	65,2	33,3	53,8
Euskara ikasgai gisa (A eredua)	24,6	27,3	31,0	28,1
Euskaraz eta gaztelaniaz (B eredua)	3,5	4,5	10,3	6,7
Erdara ikasgai gisa (D eredua)	0,0	3,0	25,3	11,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	<i>57</i>	<i>66</i>	<i>87</i>	<i>210</i>



Eskolatik kanpo euskara ikasteko ahalegina egin dutenen artean gehiengoak ez zuen aukera hori izan eskolan (%53,8) edota euskara ikasgai gisa izan zuen (%28,1).

Eskolatik kanpo euskara ikasi dutenen artean, gaur egun elebidun direnen heren batek ez du euskara eskolan jaso eta beste %31k euskara ikasgai bezala izan du eskolan.

		Hizkuntza ereduak berberak				Guztira
		Ikasgai guztiak erdaraz (X ereduak)	Euskara ikasgai gisa (A ereduak)	Euskaraz eta gaztelaniaz (B ereduak)	Erdara ikasgai gisa (D ereduak)	
Erdalduna	A1 1-2 Urratsak	42,9	21,4	100,0	0	39,7
	A2 3-4 Urratsak	14,3	21,4	0	0	15,5
	B1 (5-6 Urratsak, 1.perfila)	23,8	50,0	0	0	29,3
	B2 (7-8-9 Urratsak, 2.perfila edo Irakasleen-Ertzaintzaren 1)	7,1	0	0	0	5,2
	Ez daki	11,9	7,1	0	0	10,3
	Guztira	100,0	100,0	100,0	0	100,0
Elebidun hartzailea	A1 1-2 Urratsak	11,6	5,6	100,0	0	13,6
	A2 3-4 Urratsak	14,0	27,8	0	0	16,7
	B1 (5-6 Urratsak, 1.perfila)	30,2	44,4	0	0	31,8
	B2 (7-8-9 Urratsak, 2.perfila edo Irakasleen-Ertzaintzaren 1)	25,6	11,1	0	0	19,7
	C1 (10-11-12 Urratsak, 3. Perfila, EGA)	2,3	0	0	100,0	4,5
	C2 (4.perfila)	7,0	0	0	0	4,5
	Ez daki	9,3	11,1	0	0	9,1
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100	100,0
Elebiduna	A1 1-2 Urratsak	0	0	0	0	,0
	B1 (5-6 Urratsak, 1.perfila)	16,7	25,9	22,2	0	16,1
	B2 (7-8-9 Urratsak, 2.perfila edo Irakasleen-Ertzaintzaren 1)	33,3	7,4	11,1	28,6	21,8
	C1 (10-11-12 Urratsak, 3. Perfila, EGA)	46,7	55,6	66,7	71,4	57,5
	C2 (4.perfila)	0	0	0	0	,0
	Ez daki	3,3	11,1	0	0	4,6
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100	100,0
Guztira	A1 1-2 Urratsak	20,0	6,8	35,7	0	15,2
	A2 3-4 Urratsak	10,4	13,6	0	0	9,5
	B1 (5-6 Urratsak, 1.perfila)	24,3	37,3	14,3	0	24,6
	B2 (7-8-9 Urratsak, 2.perfila edo Irakasleen-Ertzaintzaren 1)	20,9	6,8	7,1	26,1	16,6
	C1 (10-11-12 Urratsak, 3. Perfila, EGA)	13,0	25,4	42,9	73,9	25,1
	C2 (4.perfila)	2,6	0	0	0	1,4
	Ez daki	8,7	10,2	0	0	7,6
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100	100,0

Eskolatik kanpoko sozializazioa izan duten arren erdaldunak izaten jarraitzen dutenak ez dira eskolan aritu edo A ereduak ikasi dute eta gehienek oinarrizko maila besterik eskuratu ez badute ere, bada B1 maila (euskalduntzearen lehen maila) eskuratu dutela dioten ia laurden bat (%23,8).


Elebidun hartzaileen kasuan joera berdina errepikatzen da, baina B2 eta baita C1 maila ere eskuratu dutela diotenak egongo lirateke hauen artean.

Euren maila zein den ez dakitenen kopurua altua da, baina mailak gora egin ahala gutxituz doa. Euskara ikasten zenbat eta denbora gehiago eman, zertifikazio eta hizkuntza mailen sistemaren gaineko orduak eta ezagutza handiagoa dutelako (B2 eta C1 mailekin ere gertatu ahal izan da, baina C2 maila dutela diotenek euren euskara maila elebidun hartzailea izateko bestekoa izatea mailaren gaineko ezezagutzaren ondorio izango da ziurrenik).

Euskara eskolatik kanpo ikasten aritu diren elebidunen artean eskuratutako maila altuagoa da eta hizkuntza ereduaren arabera ere aldatzen da; D ereduak ikasi dutenen portzentajea altuagoa da maila altuenean.

4.1.3.4 *Ikasi duten lekuen gaineko balorazioa (euskaltegia, hizkuntza eskola, guraso eskolak, banaka atalez atalkako balorazioa)*

	Euskaltegian		Hizkuntza eskolan		Udaleko guraso talde batean		Beste		Guztira	
	BB	Desb. tip.	BB	Desb. tip.	BB	Desb. tip.	BB	Desb. tip.	BB	Desb. tip.
Klaseko giroa	8,36	1,176	7,90	1,573	8,39	1,342	8,58	1,208	8,35	1,222
Irakasleen prestakuntza	8,13	1,346	8,55	1,061	7,60	1,280	8,60	1,354	8,18	1,337
Eskolak / metodologia	7,90	1,449	7,27	1,816	7,43	1,043	7,42	1,390	7,77	1,454
Ikasle kopurua	7,79	1,300	7,15	,978	6,05	2,963	8,28	1,105	7,67	1,531
Ordutegi malgutasuna	7,65	1,499	7,47	1,620	6,55	1,574	7,75	2,240	7,57	1,628
Gertutasuna (etxe edo lantokiarekiko)	7,51	1,725	6,90	1,973	7,90	,896	8,42	1,617	7,60	1,713
Ikastaroaren prezioa	7,04	2,236	7,39	1,653	7,87	1,516	8,20	2,121	7,26	2,151
<i>n</i>	133		13		14		21		181	




Eskolatik kanpo euskara ikasi dutenek egin duten lekuari buruzko balorazioei dagokienez, euskaltegiak jaso ditu balorazio altuenak. Gehiengoak euskaltegian ikasi duenez, balorazio orokorregandik hurbilen dauden emaitzak izan ditu euskaltegiak, baina prezioan, irakasleen prestakuntzan eta gertutasunean egon da balorazio orokorretatik behera.

Euskaltegian ibili direnen artean balorazio altuena klaseko giroari ematen zaio eta Hizkuntza eskolan aritu direnek irakasleen prestakuntzari eman diote baliorik altuena. Azkenik, Udaleko guraso taldeetako ikasleek, euskaltegiek bezala, klaseko giroari eman diote notarik altuena.

Baloraziorik eskasena ikastaroaren prezioa izan da euskaltegien kasuan (7,04), gertutasuna Hizkuntza Eskolarenean (6,90) eta ikasle kopurua guraso taldeetako ikasleen aburuz (6,05).

4.1.3.5 *Ikastaroaren aspektu garrantzitsuena*

	Maiztasuna	Ehunekoa
Irakasleen prestakuntza	73	39,2
Eskolen egokitasuna, metodologia	46	24,6
Ordutegi malgutasuna	26	13,9
Klaseko giroa	20	11,0
Gertutasun fisikoa	8	4,6
Ikastaroen prezioa	8	4,1
Ikas taldearen tamaina	5	2,6
Guztira	185	100,0



Ikastaroaren alderdirik garrantzitsuenak irakasleen prestakuntza (%39,2), eskolen egokitasuna /metodologia (%24,6) eta ordutegi malgutasuna (%13,9) izan dira.


Azpimarratzekoa da okerren baloratu diren aspektuak direla, hain justu, garrantzia mailarik apalena dutenak inkestatuen irudiko.

5 EUSKARAREN ERABILERARAKO AUKEREREN HAUTEMATEA ETA PRAKTIKA


5.1 ERABILERARAKO AUKERAK (elebidunen dentsitatea)

5.1.1 Etxeko elebidunen dentsitatea

	Maiztasuna	Ehunekoak
Denek dakite euskaraz	80	6,8
Erdiek baino gehiagok dakite euskaraz	125	10,6
Erdiek dakite euskaraz	214	18,2
Erdiek baino gutxiagok dakite euskaraz	214	18,2
Inork ez daki euskaraz	542	46,1
Guztira	1.175	100,0



	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Denek dakite euskaraz	0,0	29,4
Erdiek baino gehiagok dakite euskaraz	13,2	21,0
Erdiek dakite euskaraz	23,6	26,8
Erdiek baino gutxiagok dakite euskaraz	15,9	22,8
Inork ez daki euskaraz	47,3	
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	182	272




Etxean bizi direnen hizkuntza gaitasunari buruz galdetu ostean, inkestatuek etxean dute errealitate linguistikoaren argazkia atera dugu. Hala, erabat erdaldunak diren etxe giroak nagusi dira (%46,1), baina euskaraz dakitenak etxeko kideen erdia edo gehiago dira kasuen % 35,7an.

Hizkuntza gaitasunaren arabera, euskaraz dakitenen dentsitateak gora egiten du elebidunen kasuan, hauen artean erdiak duelarik elebidun dentsitate altua (erdiak baino gehiagok dakite, hain zuzen).

5.1.2 Inguru hurbileko elebidunen dentsitatea


Euskararen ezagutza lagunen artean

	Maiztasuna	Ehunekoak
Denek edo ia denek dakite euskaraz	106	9,1
Erdiek baino gehiagok	137	11,7
Erdiek dakite	139	11,8
Erdiek baino gutxiagok	315	26,9
Inork ez edo ia inork ez	473	40,4
Guztira	1.170	100,0



Euskararen ezagutza lagunen artean gaitasunaren arabera

	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Denek edo ia denek dakite euskaraz	3,8	34,1
Erdiek baino gehiagok	16,5	28,2
Erdiek dakite	21,4	12,5
Erdiek baino gutxiagok	31,9	18,7
Inork ez edo ia inork ez	26,4	6,6
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	182	273




Lagun artea erdalduna da nagusiki (%40,4), baina euskararen ezagutza altua (%20,8) edo gaztelaniaren parekoa (%11,8) dutenak herena dira.

Hizkuntza gaitasunaren arabera aztertuta, garrantzitsuagoa da euskaraz dakiten lagunen dentsitatea elebidunen kasuan.


Euskararen ezagutza auzokoen artean

	Maiztasuna	Ehunekoa
Denek edo ia denek dakite euskaraz	21	1,8
Erdiek baino gehiagok	60	5,2
Erdiek dakite euskaraz	114	9,7
Erdiek baino gutxiagok	335	28,7
Inork ez edo ia inork ez	481	41,2
Ez daki	156	13,4
Guztira	1.168	100,0



Euskararen ezagutza auzokoen artean gaitasunaren arabera

	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Denek edo ia denek dakite euskaraz	0,6	6,3
Erdiek baino gehiagok	6,1	12,5
Erdiek dakite euskaraz	12,2	16,9
Erdiek baino gutxiagok	28,3	28,7
Inork ez edo ia inork ez	42,8	18,8
Ez daki	10,0	16,9
Guztira	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	<i>180</i>	<i>272</i>




Auzokideen artean euskaraz zenbatek dakien euskaraz galdetzean, askok ez dakiela erantzuten du, baina esanguratsua da gehiago direla ez dakitela diotenak elebidunen artean (%16,9).

Bestalde, oro har auzokideen artean euskararen ezagutza baxua dela diote arabarrek (ia %70ek), baina euren auzokideen artean elebidun dentsitate handiagoa dagoelako pertzepzioa dute elebidunek.

5.1.3 Ikastetxe / lantokiko elebidunen dentsitatea


Euskararen ezagutza lankideen artean

	Maiztasuna	Ehunekoa
Denek edo ia denek dakite euskaraz	70	12,9
Erdiek baino gehiagok	72	13,4
Erdiek dakite euskaraz	67	12,5
Erdiek baino gutxiagok	159	29,5
Inork ez edo ia inork ez	171	31,8
Guztira	540	100,0



Euskararen ezagutza lankideen artean hizkuntza gaitasunaren arabera

	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Denek edo ia denek dakite euskaraz	10,6	31,1
Erdiek baino gehiagok	14,2	25,8
Erdiek dakite euskaraz	16,8	7,6
Erdiek baino gutxiagok	34,5	16,7
Inork ez edo ia inork ez	23,9	18,9
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	113	132




Lankideen artean, lagunen eta auzokoen artean bezala, oro har erdal giroa nagusitzen dela ikus dezakegu, baina inork ez edo ia inork euskaraz ez dakien lan taldeak gutxiago dira (%31,8) eta euskaraz dakitenen dentsitatea ere altuagoa (%26,3ren lantokietan erdiak baino gehiagok daki eta %12,5ren kasuan erdiak dakite).

Hizkuntza gaitasunaren arabera ere, elebidunen kasuan aurkitzen dugu lan esparruan dentsitaterik altuena (erdiak baino gehiagok lan egiten du ezagutza portzentaje altua duen inguru batean).


Euskararen ezagutza ikaskideen artean

	Maiztasuna	Ehunekoa
Denek edo ia denek dakite euskaraz	55	56,1
Erdiek baino gehiagok	18	18,1
Erdiek dakite euskaraz	5	5,5
Erdiek baino gutxiagok	15	15,4
Inork ez edo ia inork ez	5	4,9
Guztira	99	100,0



Euskararen ezagutza ikaskideen artean hizkuntza gaitasunaren arabera

	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Denek edo ia denek dakite euskaraz	15,4	67,1
Erdiek baino gehiagok	23,1	13,2
Erdiek dakite euskaraz	15,4	3,9
Erdiek baino gutxiagok	38,5	13,2
Inork ez edo ia inork ez	7,7	2,6
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	13	76




Ikasten ari diren inkestaturen ikaskideen artean dagoen elebidun dentsitatea altua da (ikaskideen erdiek baino gehiagok dakitela %74,2k dio) eta elebidunen artean handiagoa.

5.1.4 Arlo pribatuko elebidunen dentsitatea


Euskararen ezagutza saltzaileen artean

	Maiztasuna	Ehunekoak
Denek edo ia denek dakite euskaraz	15	1,3
Erdiek baino gehiagok	77	6,7
Erdiek dakite euskaraz	129	11,2
Erdiek baino gutxiagok	338	29,2
Inork ez edo ia inork ez	300	26,0
Ez daki	297	25,7
Guztira	1.157	100,0



Euskararen ezagutza saltzaileen artean hizkuntza gaitasunaren arabera

	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Denek edo ia denek dakite euskaraz	0,6	3,3
Erdiek baino gehiagok	9,5	7,4
Erdiek dakite euskaraz	13,4	15,9
Erdiek baino gutxiagok	34,1	41,3
Inork ez edo ia inork ez	19,0	17,7
Ez daki	23,5	14,4
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	179	271




Tokiko komertzioetako saltzaileen artean dagoen elebidun dentsitatearen pertzepzioak gora egiten du gainerako inguruekin alderatuta (ikaskideena izan ezik), baina erantzuten ez dakitenen kopuruak duen pisuari zor zaio.

Orain artean bezala, elebidunen artean saltokietako elebidun dentsitatea altuagoa delako pertzepzioa nagusitzen da. Oraingoan, gainera, arabar guztien gaineko portzentajea (%25,7) baino txikiagoa da ez dakiela erantzuten dutenena elebidunen artean (%14,4).


Euskararen ezagutza bankuan

	Maiztasuna	Ehunekoak
Denek edo ia denek dakite euskaraz	101	8,9
Erdiek baino gehiagok	196	17,3
Erdiek dakite euskaraz	145	12,8
Erdiek baino gutxiagok	114	10,1
Inork ez edo ia inork ez	123	10,8
Ez daki	454	40,1
Guztira	1.134	100,0



Euskararen ezagutza bankuan hizkuntza gaitasunaren arabera

	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Denek edo ia denek dakite euskaraz	10,1	17,3
Erdiek baino gehiagok	24,0	21,4
Erdiek dakite euskaraz	15,1	10,9
Erdiek baino gutxiagok	8,9	16,1
Inork ez edo ia inork ez	10,6	10,1
Ez daki	31,3	24,2
Guztira	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	<i>179</i>	<i>248</i>




Komertzioetan gertatu bezala, galdera honi erantzuten jakin ez dutenen portzentajea oso altua da (%40,1), eta elebidunen artean askoz ere baxuagoa (%24,2).

Bestalde, bankuko langileen artean elebidunen dentsitatea altuagoa delako ustea zabalduago dago elebidunen artean.

5.1.5 Administrazioiko elebidunen dentsitatea


Euskararen ezagutza anbulatorioan

	Maiztasuna	Ehunekoa
Denek edo ia denek dakite euskaraz	132	11,3
Erdiek baino gehiagok	256	21,9
Erdiek dakite euskaraz	180	15,4
Erdiek baino gutxiagok	97	8,3
Inork ez edo ia inork ez	70	6,0
Ez daki	432	37,0
Guztira	1.169	100,0



Euskararen ezagutza anbulatorioan hizkuntza gaitasunaren arabera

	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Denek edo ia denek dakite euskaraz	13,7	20,8
Erdiek baino gehiagok	27,9	28,3
Erdiek dakite euskaraz	16,4	16,0
Erdiek baino gutxiagok	3,8	16,0
Inork ez edo ia inork ez	5,5	5,2
Ez daki	32,8	13,8
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	183	269




Galdera honetan ere anbulatorioan dagoen elebidunen dentsitateari buruz galdetuta asko izan dira ez dakitela erantzun dutenak (%37) eta elebidunen artean jaitsi egin da kopuru hori.

Erantzun dutenen artean, gainerako eremuetan baino elebidun dentsitate handiagoa hautematen dute anbulatorioen kasuan (elebidunen %49,1ek denek edo erdiek baino gehiagok dakitela uste du).


Euskararen ezagutza Udalean

	Maiztasuna	Ehunekoa
Denek edo ia denek	146	12,6
Erdiek baino gehiagok	277	23,9
Erdiek	170	14,6
Erdiek baino gutxiagok	62	5,4
Inork ez edo ia inork ez	43	3,7
Ez daki	463	39,9
Guztira	1.162	100,0



Euskararen ezagutza Udalean hizkuntza gaitasunaren arabera


	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Denek edo ia denek	16,7	23,2
Erdiek baino gehiagok	27,2	31,4
Erdiek	12,8	19,2
Erdiek baino gutxiagok	5,0	5,9
Inork ez edo ia inork ez	2,2	1,8
Ez daki	36,1	18,5
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	180	271



Udaleko langileen euskararen ezagutzari buruz galdetuta, anbulatorioan baino zertxobait gehiago dira ez dakitela erantzuten dutenak (%39,9), baita elebidunen artean ere. Erantzuten dutenen artean, baina, gehixeago dira elebidun dentsitate altuagoa hautematen dutenak (elebidunen artean %54,6), nola euskara ez dakiten langileen portzentajea txikiagoa dela uste dutenak (elebidunen artean %7,7, anbulatorioen kasuan %21,2koa denean).


Euskara ezagutza Eusko Jaurlaritzan

	Maiztasuna	Ehunekoa
Denek edo ia denek dakite euskaraz	177	16,5
Erdiek baino gehiagok	250	23,2
Erdiek dakite euskaraz	83	7,7
Erdiek baino gutxiagok	22	2,0
Inork ez edo ia inork ez	31	2,9
Ez daki	514	47,7
Guztira	1.078	100,0



**Euskara ezagutza Eusko Jaurlaritzan
hizkuntza gaitasunaren arabera**


	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Denek edo ia denek dakite euskaraz	23,7	28,6
Erdiek baino gehiagok	27,2	28,2
Erdiek dakite euskaraz	6,9	9,0
Erdiek baino gutxiagok	1,2	2,4
Inork ez edo ia inork ez	2,3	0,8
Ez daki	38,7	31,0
Guztira	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	173	245



Euskararen ezagutza Arabako Foru Aldundian


	Maiztasuna	Ehunekoa
Denek edo ia denek	46	20,2
Erdiek baino gehiagok	54	23,4
Erdiek	23	9,9
Erdiek baino gutxiagok	19	8,2
Inork ez edo ia inork ez	2	0,8
Ez daki	86	37,4
Guztira	229	100,0

n=Zerbitzuren bat erabili dutenak



Euskararen ezagutza Arabako Foru Aldundian hizkuntza gaitasunaren arabera

	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Denek edo ia denek	31,4	22,1
Erdiek baino gehiagok	31,4	19,1
Erdiek	8,6	16,2
Erdiek baino gutxiagok	8,6	14,7
Inork ez edo ia inork ez	0,0	2,9
Ez daki	20,0	25,0
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	35	68



Arabako Foru Aldundiko langileen euskararen ezagutza zenbatekoa den ez dakitenen kopurua altua da kasu honetan ere (%37,4), eta %25era jaisten da elebidunei galdetzen zaienean.

Elebidunen artean euskaraz ez dakiten Arabako Foru Aldundiko langileen kopurua nabarmenagoa da (orokorrean %9 eta elebidunen artean %17,6), euskaraz badakitenak gehiago direla uste dutenen kopurua antzekoagoa den bitartean (%43,6 biztanle guztiak kontuan hartuta eta %41,2 elebidunen kasuan).

5.1.6 Elebidunen dentsitatea eremuka

	Erdiek baino gehiagok edo denek dakite euskaraz
Ikaskideen euskara ezagutza	74,2
Foru Aldundian euskararen ezagutza	43,6
Udalean euskara ezagutza	36,4
Anbulatorioan euskara ezagutza	33,3
Lankideen euskara ezagutza	26,3
Banketxeetan euskara ezagutza	26,2
Eusko Jaurlaritzan euskara ezagutza	23,4
Lagunen euskara ezagutza	20,8
Tokiko komertzioetan euskara ezagutza	8,0
Auzokoen euskara ezagutza	7,0

Eremuz eremu aztertuta arabarren hautemateak euskaren ezagutzari dagokionean, ikasketa guneak dira zalantzarik gabe eremurik euskaldunena. Jarraian, Foru Aldundia eta Udalak datoz. Eremu tipologia gisa antzekoa den Eusko Jaurlaritzari tarte handi bat ateratzen diote (20 puntu inguru).


Kontrako muturrean, tokiko komertzioak eta auzotarrak daude, %8,0 eta %7,0 hurrenez hurren.

5.2 ERABILERAK EREMUKA


5.2.1 Etxean

Bikotearekin bizi denean honekin duen euskararen erabilera

	Maiztasuna	Ehunekoa
Beti gaztelaniaz	628	90,7
Gaztelaniaz gehiago	31	4,5
Bietan berdin	12	1,7
Euskaraz gehiago	7	1,0
Beti euskaraz	15	2,1
Guztira	693	100,0



	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Beti gaztelaniaz	88,8	54,9
Gaztelaniaz gehiago	8,4	19,5
Bietan berdin	2,8	7,1
Euskaraz gehiago	0,0	6,2
Beti euskaraz	0,0	12,4
Guztira	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	<i>107</i>	<i>113</i>




Bikotearekin bizi diren arabar guztien artean, soilik %3,1ek egiten du euskaraz beti edo batez ere. Dena den, euskaraz bikotearekin neurri batean edo bestean egiten dutenak %9,3 besterik ez dira, gainerakoek (euskaraz jakin ala ez) beti gaztelaniaz egiten baitute.


Inkestatuen hizkuntza gaitasuna kontuan izanda, elebidunen kasuan %54,9ra jaisten da bikotekidearekiko elkarrizketa erdara hutsean dutenen portzentajea. Bestalde, %12,4ra igotzen da beti euskaraz egiten dutenena eta maila batean edo bestean euskara darabiltenena % 45,2.

Seme-alabekin bizi denean hauekin duen euskararen erabilera

	Maiztasuna	Ehunekoa
Beti gaztelaniaz	376	78,6
Gaztelaniaz gehiago	29	6,1
Bietan berdin	24	4,9
Euskaraz gehiago	20	4,1
Beti euskaraz	30	6,2
Guztira	478	100,0



	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Beti gaztelaniaz	61,4	23,9
Gaztelaniaz gehiago	22,9	10,9
Bietan berdin	9,6	16,3
Euskaraz gehiago	3,6	18,5
Beti euskaraz	2,4	30,4
Guztira	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	83	92




Seme-alabekiko erabilera da arabar guztiak barne hartuta beti euskaraz aritzen direnen portzentajerik altuena duena, ez, ordea, beti gaztelaniaz aritzen direnen portzentajerik txikiena (neba-arrebekiko elkarrizketek dute eta).


Elebidunen artean, bada, %30,4ko balioraino iristen da beti euskaraz hitz egiten dutenen kopurua, beti gaztelaniaz egiten dutenenak, aldiz, etxeko kide guztien artean balore baxuena du, %50etik beherakoa den bakarra, gainera.

Amarekin bizi denean honekin duen euskararen erabilera

	Maiztasuna	Ehunekoak
Beti gaztelaniaz	230	93,3
Gaztelaniaz gehiago	3	1,4
Bietan berdin	1	0,2
Euskaraz gehiago	6	2,6
Beti euskaraz	6	2,5
Guztira	246	100,0




	Elebidun hartzaila	Elebiduna
Beti gaztelaniaz	100,0	87,2
Gaztelaniaz gehiago		2,4
Bietan berdin		0,8
Euskaraz gehiago		4,8
Beti euskaraz		4,8
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	49	125




Etxean bizi den amarekin egiten den hizkuntzari dagokionez, bikotekidearen kasuan baino are txikiagoa dugu euskara gehiago ala gutxiago darabiltenen kopurua (%6,7). Elebidunen artean, gainera, kopuru hauek ez dira euskararen alde gehiegi aldatzen.

Aitarekin bizi denean honekin duen euskararen erabilera

	Maiztasuna	Ehunekoa
Beti gaztelaniaz	159	86,1
Gaztelaniaz gehiago	8	4,3
Bietan berdin	3	1,7
Euskaraz gehiago	6	3,5
Beti euskaraz	8	4,4
Guztira	185	100,0




	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Beti gaztelaniaz	100,0	77,5
Gaztelaniaz gehiago		7,2
Bietan berdin		2,7
Euskaraz gehiago		5,4
Beti euskaraz		7,2
Guztira	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	<i>46</i>	<i>111</i>




Aitaren kasuan, beste horrenbeste gertatzen da, ñabardura batzuekin; aitarekin bizi direnak gutxiago direla eta hauen artean euskaraz aritzen direnak gehixeago direla, baita elebidunen artean ere.

Neba-arrebekin bizi denean hauekin duen euskararen erabilera

	Maiztasuna	Ehunekoa
Beti gaztelaniaz	78	67,0
Gaztelaniaz gehiago	20	17,0
Bietan berdin	11	9,4
Euskaraz gehiago	4	3,3
Beti euskaraz	4	3,2
Guztira	117	100,0




	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Beti gaztelaniaz	86,4	50,0
Gaztelaniaz gehiago	13,6	23,6
Bietan berdin		15,3
Euskaraz gehiago		5,6
Beti euskaraz		5,6
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	22	72




Arestian aipatu bezala, beti gaztelaniaz aritzen direla diotenen portzentajerik txikiena neba-arrebekin bizi direnen artean aurkitzen dugu (%67). Hala ere, ahaidetasun maila honen baitan euskaraz gehiago edo beti aritzeko jarrerak indar gutxiago du (elebidunen %11,2).

Etxean bizi diren guztiak batera daudenean euskararen erabilera

	Maiztasuna	Ehunekoa
Beti gaztelaniaz	896	88,3
Gaztelaniaz gehiago	53	5,2
Bietan berdin	26	2,5
Euskaraz gehiago	16	1,6
Beti euskaraz	25	2,4
Guztira	1.015	100,0



	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Beti gaztelaniaz	83,7	63,3
Gaztelaniaz gehiago	11,4	13,5
Bietan berdin	3,6	8,0
Euskaraz gehiago	1,2	5,6
Beti euskaraz		9,6
Guztira	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	<i>166</i>	<i>251</i>




Etxeke kide guztiak elkartzen direnean euskararen erabilera, maila batean edo bestean, kasuen %11,7an besterik ez da gertatzen arabar guztien artean.


Elebidunei dagokienez, euskaraz beti edo gehiago aritzen direnak laurdena dira eta nola edo hala euskara darabiltenak etxean kide guztiak daudenean elebidunen %36,7.

Etxeko erabilera orokorra

	Maiztasuna	Ehunekoa
Dena gaztelaniaz	999	85,0
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	115	9,8
Bietan berdin	19	1,6
Euskaraz gehiago	23	2,0
Dena euskaraz	19	1,6
Guztira	1.175	100,0



	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Dena gaztelaniaz	78,0	50,4
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	19,2	29,4
Bietan berdin	1,6	5,9
Euskaraz gehiago	1,1	7,7
Dena euskaraz		6,6
Guztira	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	<i>182</i>	<i>272</i>




Euskara hutsaren erabilerak atzera egin badu ere, erdara hutsarenak ere pisua galdu du⁵.

Dena den, Arabako etxeetan euskarak elkarrizketetan duen presentzia urria da (etxeen %15ean, hain zuzen). Inkestatu elebidunen artean, berriz, ia erdira iristen da (%49,6) presentzia hori, nahiz eta hauen artean gehiengoak (%29,4k) nagusiki erdaraz hitz egiten duen.

⁵ Ikus metodozko oharretan etxeko erabileraren kalkulua nola egin den.

ETXEKO ERABILERAREN TIPOLOGIA ("ERABIL" INDIZEA)

	Maiztasuna	Ehunekoa
Euskaldun zahar aktiboak	18	4,3
Euskaldun zahar bietan aktiboak	5	1,2
Euskaldun zahar pasiboak	11	2,8
Jatorrizko elebidun aktiboak	6	1,4
Jatorrizko elebidun bietan aktiboak	14	3,5
Jatorrizko elebidun pasiboak	6	1,6
Hiztun berri aktiboak	11	2,6
Hiztun berri bietan aktiboak	20	5,0
Hiztun berri pasiboak	157	38,2
Elebidun hartzaile berri aktiboak	1	0,2
Elebidun hartzaile berri bietan aktiboak	5	1,2
Elebidun hartzaile berri pasiboak	143	34,7
Partzialki erdaldundu bietan aktiboak	3	0,6
Partzialki erdaldundu pasiboak	11	2,7
Guztira	411	100,0




BILA indizearen arabera sortutako hiztun tipologia bakoitzaren etxeko hizkuntza zein den aztertuta, erabilera indizeak altuenak hiztun berri pasiboak eta elebidun hartzaile berri pasiboak kasuan aurki ditzakegu. Lehenengo kasuan, euskara lehen hizkuntza izan ez eta bere etxean euskaraz baino gehiago gaztelaniaz egiten dena (euskararen etxeko erabilera orokorra %30a baino gutxiagokoa) izango genuke. Bigarrenean, aldiz, euskararen erabilera parametro beretsuetan kokatuta, elebiduna izatera iristen ez den eta lehen hizkuntza euskara izan ez duen hiztunaren kasua litzateke.

5.2.2 Inguru hurbilean


Euskararen erabilera lagunekin

	Maiztasuna	Ehunekoa
Beti euskaraz	16	1,4
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	33	2,8
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	51	4,3
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	109	9,2
Beti gaztelaniaz	967	82,3
Guztira	1.175	100,0



Euskararen erabilera lagunekin hizkuntza gaitasunaren arabera


	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Beti euskaraz		6,3
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago		13,0
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	2,3	18,5
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	15,8	34,3
Beti gaztelaniaz	82,0	28,0
Guztira	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	<i>133</i>	<i>254</i>



16 urtetik gorako arabarrek lagunaren artean nagusiki edo beti gaztelaniaz hitz egiten dute (%91,5) eta elebidunen kasuan gehiengoa izaten jarraitzen badute ere (%62,3), nabarmen jaisten da portzentajea eta euskaraz beti edo gehiago aritzen direnena igo (%4,2tik %19,3ra).


Euskararen erabilera auzokoekin

	Maiztasuna	Ehunekoak
Beti euskaraz	5	0,4
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	10	0,8
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	30	2,6
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	91	7,7
Beti gaztelaniaz	1.039	88,4
Guztira	1.174	100,0



Euskararen erabilera auzokoekin hizkuntza gaitasunaren arabera

	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Beti euskaraz		2,3
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago		4,5
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	5,8	11,4
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	7,7	37,7
Beti gaztelaniaz	86,5	44,1
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	104	220




Auzokoekin euskararen erabilera oso urria da, oro har, baina neurri batean edo bestean euskaraz aritzen direnak elebidun guztien erdia baino gehiago dira (%55,9).

5.2.3 Ikastetxe / lantokian


Euskararen erabilera lankideekin

	Maiztasuna	Ehunekoak
Beti euskaraz	13	1,7
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	20	2,6
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	34	4,4
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	33	4,3
Beti gaztelaniaz	670	87,1
Guztira	769	100,0



Euskararen erabilera lankideekin hizkuntza gaitasunaren arabera


	Elebidun hartzailera	Elebiduna
Beti euskaraz		12,0
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago		18,5
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	7,9	25,0
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	13,5	19,4
Beti gaztelaniaz	78,7	25,0
Guztira	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	<i>89</i>	<i>108</i>



Lankideekin gaztelania hutsean aritzen da lanean diharduen 16 urtetik gorako arabarren gehiengoa (%87,1), baina elebidunak direnen artean laurdena besterik ez da gaztelania hutsean egiten duena, ia heren batek euskara erabiltzen du soilik edo nagusiki lankideen artean eta beste laurden bat bietan aritzen da lantokian.


Euskararen erabilera ikaskideekin

	Maistasuna	Ehunekoak
Beti euskaraz	16	3,3
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	16	3,5
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	13	2,7
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	12	2,5
Beti gaztelaniaz	417	88,1
Guztira	473	100,0



Euskararen erabilera ikaskideekin hizkuntza gaitasunaren arabera

	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Beti euskaraz		21,6
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago		21,6
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste		17,6
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	8,3	14,9
Beti gaztelaniaz	91,7	24,3
Guztira	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	<i>12</i>	<i>74</i>




Ikaskideen artean are aldekoagoak dira euskara erabiltzen duten arabarren portzentajeak zein elebidunen arteko erabilerak, beti edo gehienetan euskaraz aritzen direnek elebidunen %43,2 batzen baitute.

5.2.4 Arlo pribatuan


Euskararen erabilera saltzaileekin

	Maiztasuna	Ehunekoa
Beti euskaraz	6	0,5
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	17	1,5
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	34	2,9
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	69	5,9
Beti gaztelaniaz	1.048	89,2
Guztira	1.175	100,0



Euskararen erabilera saltzaileekin hizkuntza gaitasunaren arabera


	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Beti euskaraz		2,2
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago		6,3
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	2,8	10,3
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	5,0	22,1
Beti gaztelaniaz	92,3	59,2
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	181	272



Saltzaileekin elebidunek darabilten hizkuntza nagusia gaztelania da (kasuen %81,3an gailentzen zaio euskarari elebidunen artean).


Euskararen erabilera bankuan

	Maiztasuna	Ehunekoa
Beti euskaraz	10	0,9
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	22	1,9
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	20	1,7
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	58	5,0
Beti gaztelaniaz	1.052	90,5
Guztira	1.162	100,0



Euskararen erabilera bankuan hizkuntza gaitasunaren arabera

	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Beti euskaraz		3,8
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago		8,1
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	1,7	6,5
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	5,0	18,8
Beti gaztelaniaz	93,4	62,7
Guztira	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	<i>181</i>	<i>260</i>




Komertzioei dagokien antzeko parametroetan jaso dugu bankuan egiten den erabilera arabarren artean. Elebidunen erantzunei erreparaturaz, berriz, zertxobait hobekak dira euskaraz gehiago edo beti aritzen direnen portzentajeak, baina gaztelaniaz beti edo gehiago egiten dutenena parekoa da.

5.2.5 Administrazioan

Euskararen erabilera anbulatorioan


	Maiztasuna	Ehunekoak
Beti euskaraz	14	1,2
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	29	2,5
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	31	2,6
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	65	5,6
Beti gaztelaniaz	1.032	88,2
Guztira	1.171	100,0

*Arabar guztien %



Euskararen erabilera anbulatorioan hizkuntza gaitasunaren arabera


	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Beti euskaraz		5,5
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago		11,1
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	2,4	10,7
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	5,9	21,7
Beti gaztelaniaz	91,8	51,0
Guztira	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	<i>170</i>	<i>253</i>



Elebidunen euskararen erabilera portzentajeak arlo pribatuari dagozkionen gainetik daude, nahiz eta oraindik ere %72,7k egiten duen gehiago edo beti gaztelaniaz.


Euskararen erabilera Udalean

	Maiztasuna	Ehunekoak
Beti euskaraz	15	1,3
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	30	2,6
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	42	3,7
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	59	5,1
Beti gaztelaniaz	1.006	87,3
Guztira	1.153	100,0



Euskararen erabilera Udalean hizkuntza gaitasunaren arabera


	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Beti euskaraz		5,9
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago		11,7
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	2,3	14,8
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	7,3	18,4
Beti gaztelaniaz	90,4	49,2
Guztira	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	<i>177</i>	<i>256</i>



Udalari dagokionez, anbulatorioan baino apalagoa da gaztelaniaren nagusitasuna (%67,6) eta euskararen erabilerak zertxobait hazten jarraitzen du.


Euskararen erabilera Eusko Jaurlaritzan

	Maistasuna	Ehunekoak
Beti euskaraz	11	0,9
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	38	3,3
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	25	2,2
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	54	4,7
Beti gaztelaniaz	1.016	88,9
Guztira	1.144	100,0



Euskararen erabilera Eusko Jaurlaritzan hizkuntza gaitasunaren arabera


	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Beti euskaraz		4,1
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	1,6	13,2
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	2,2	7,9
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	7,1	15,4
Beti gaztelaniaz	88,0	50,8
Ez daki	1,1	8,6
Guztira	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	<i>183</i>	<i>266</i>



Aurrez aipatutako joera errepikatu eta gaztelaniaren erabilerari zertxobait irabazten dio euskararenak Eusko Jaurlaritzari dagokionean, batez ere euskaraz gehiago egiten dutela dioten elebidunen artean.

Arabako Foru Aldundiko zerbitzuen erabilera orokorra


	Maiztasuna	Ehunekoa
Erabili dute	231	19,7
Ez dute erabili	944	80,3
Guztira	1.175	100,0



Euskararen erabilera Arabako Foru Aldundian


	Maiztasuna	Ehunekoa
Beti euskaraz	5	4,9
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	9	9,5
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	7	7,2
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	19	19,4
Beti gaztelaniaz	57	59,0
Guztira	97	100,0

n=azken 12 hilabeteetan zerbitzuren bat erabili duten elebidunak



Euskararen erabilera Arabako Foru Aldundian hizkuntza gaitasunaren arabera

	Elebidun hartzailera	Elebiduna
Beti euskaraz		7,9
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago		14,3
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste		11,1
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	6,1	25,4
Beti gaztelaniaz	93,9	41,3
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	33	63



Galdera honi azken 12 hilabeteetan Arabako Foru Aldundiren zerbitzuren bat erabili dutenek erantzun diote, baina lagina txikiagoa izanagatik ere, orain arte administrazioan egiten den euskararen erabileraren portzentajeekin bat datoz, gutxi gorabehera.

5.2.6 Erabileren sintesia

	Euskaraz gehiago edo beti
Euskararen erabilera Arabako Foru Aldundian*	14,4
Neba-arrebekin bizi denean hauekin duen euskararen erabilera	12,7
Seme-alabekin bizi denean hauekin duen euskararen erabilera	9,0
Euskararen erabilera ikaskideekin	6,8
Aitarekin bizi denean honekin duen euskararen erabilera	5,2
Euskararen erabilera lankideekin	4,3
Euskararen erabilera Eusko Jaurlaritzan	4,2
Euskararen erabilera lagunekin	4,2
Etxean bizi diren guztiak batera daudenean euskararen erabilera	4,1
Euskararen erabilera Udalean	3,9
Euskararen erabilera anbulatorioan	3,7
Etxeke erabilera orokorra	3,6
Bikotearekin bizi denean honekin duen euskararen erabilera	3,1
Amarekin bizi denean honekin duen euskararen erabilera	2,8
Euskararen erabilera bankuan	2,8
Euskararen erabilera saltzaileekin	2,0
Euskararen erabilera auzokoekin	1,2

n=azken 12 hilabeteetan zerbitzuren bat erabili duten elebidunak

Erabilera esparru eta agente guztiak kontuan hartuta, Arabako Foru Aldundia da erabilera gehien ematen den lekua⁶. Horretaz gain, neba-arreben arteko elkarrizketetan ematen da euskara erabilera altuena. Ondoren datoz seme-alabekin eta ikaskideekin izaten direnak.

Dentsitatearen hautemateekin gertatzen zen bezala, erabileran ere tokiko komertzioetan eta auzotarrekin aurkitzen ditugu baliorik txikiak.


⁶ Galdera nori egin zaion kontuan hartu behar da. Azken 12 hilabeteetan Foru Aldundiko zerbitzuren bat erabili dutenei bakarrik galdetu zaie, horrek beste galderekin alderagarritasun aukerak txikitzen ditu.

5.3 ELEBIDUN DENTSITATEAREN ARABERAKO ERABILERA

5.3.1 Etxean

Etxeko elebidun dentsitatearen araberako erabilera

	Denek dakite euskaraz	Erdiek baino gehiagok dakite euskaraz	Erdiek dakite euskaraz	Erdiek baino gutxiagok dakite euskaraz	Inork ez daki euskaraz	Guztira
Beti euskaraz	25,4	0,8	1,4	0,0	0,0	1,9
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	27,1	4,0	0,5	0,0	0,0	2,2
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	22,0	1,6	1,4	0,0	0,0	1,8
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	11,9	40,3	17,8	7,5	0,7	11,3
Beti gaztelaniaz	13,6	53,2	78,9	92,5	99,3	82,9
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	59	124	213	213	403	1012



Erabileran zuzenki eragiten duen aldagaia ezagutza dugu, argi eta garbi, zenbat eta etxeko elebidunen dentsitatea handiagoa izan, orduan eta altuagoa baita erabilera. Hala ere, ezagutza erabatekoa denean ere, erabilera ez dago bermatua, izan ere, etxeko kide guztiek jakin arren, dena gaztelaniaz edo gehiago gaztelaniaz egiten da kasuen laurdenetan.

Bestalde, etxeko kide elebidunen dentsitatearen eta erabileraren arteko harremana ez da proportzionala, edo bestela esanda, batean hazten denak ez du proportzionalki bestean eragiten. Honek esan nahi du elebidunak ez diren dentsitateak eragin handiagoa duela erabileran, edo bestela esanda, euskaraz ez jakiteak gehiago baldintzatzen duela erabilera, batez ere denak elkarrekin daudeneko.

Erabilera indizea etxeko elebidunen dentsitatearen arabera

	Denek dakite euskaraz	Erdiek baino gehiagok dakite euskaraz	Erdiek dakite euskaraz	Erdiek baino gutxiagok dakite euskaraz	Inork ez daki euskaraz
Euskaldun zahar aktiboak	25,4	2,6	0,9	0,0	0,0
Euskaldun zahar bietan aktiboak	5,1	1,3	0,0	0,0	0,0
Euskaldun zahar pasiboak	3,4	6,6	3,4	1,1	0,0
Jatorrizko elebidun aktiboak	1,7	2,6	2,6	0,0	0,0
Jatorrizko elebidun bietan aktiboak	6,8	13,2	0,0	0,0	0,0
Jatorrizko elebidun pasiboak	0,0	3,9	0,9	2,2	0,0
Hiztun berri aktiboak	16,9	1,3	0,0	0,0	0,0
Hiztun berri bietan aktiboak	20,3	7,9	0,9	3,3	0,0
Hiztun berri pasiboak	20,3	32,9	54,7	61,5	0,0
Elebidun hartzaile berri aktiboak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Elebidun hartzaile berri bietan aktiboak	0,0	5,3	0,9	0,0	0,0
Elebidun hartzaile berri pasiboak	0,0	22,4	30,8	28,6	92,8
Partzialki erdaldundu bietan aktiboak	0,0	0,0	2,6	0,0	0,0
Partzialki erdaldundu pasiboak	0,0	0,0	2,6	3,3	7,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	59	76	117	91	69


Euskara etxeko hizkuntza duten (hots, %70etik gora hitz egiten delako) euskaldun zaharrak dira nagusi etxeko elebidun dentsitate altuena dugunean, etxeko guztiek dakitenean, alegia (%25,4). Ondoren, hiztun berriak izango genituzke, gaztelera edota bi hizkuntzak nagusi diren etxeetakoak.

Elebidun dentsitatean gora egin ahala hiztun tipologia aktiboak azaltzen zaizkigu, hau da, erabilera altuena dutenak. Era berean, euskaraz dakitenen kopuruak behera egin ahala, pasiboak nagusitzen doaz.

5.3.2 Inguru hurbilean

Lagunen arteko elebidun dentsitatearen araberako erabilera


	Denek edo ia denek dakite	Erdiek baino gehiagok	Erdiek dakite	Erdiek baino gutxiagok	Guztira
Beti euskaraz	12,9	1,9	0,0	0,0	3,8
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	18,8	7,5	8,1	0,9	8,7
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	15,8	16,0	12,2	8,3	13,1
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	24,8	43,4	25,7	17,4	27,9
Beti gaztelaniaz	27,7	31,1	54,1	73,4	46,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	101	106	74	109	390



Zenbat eta elebidun dentsitate altuagoa lagun artean, orduan eta ohikoagoa da euskaraz aritzea. Hala ere, %27,7k egiten du erdara hutsean lagunartean denek edo ia denek euskaraz jakin arren eta dentsitate altuena duen multzo honekin gertatzen den bezala, gaztelania gailentzen zaio euskarari dentsitatea edozein delarik ere.

Auzokoen arteko elebidun dentsitatearen arabera erabilera

	Denek edo ia denek dakite	Erdiek baino gehiagok	Erdiek dakite	Erdiek baino gutxiagok	Ez daki	Guztira
Beti euskaraz	21,1	0,0	1,5	0,0	0,0	1,6
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	10,5	13,6	1,5	0,0	0,0	2,8
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	26,3	18,2	13,4	5,5	0,0	9,1
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	26,3	31,8	35,8	27,6	19,0	28,1
Beti gaztelaniaz	15,8	36,4	47,8	66,9	81,0	58,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	19	44	67	127	63	320




Auzokideen artean ere, lagunarteko joera errepikatzen da, zenbat eta elebidun dentsitate altuagoa izan, orduan eta erabilera altuagoa. Hala ere, auzokide guztiak edo ia guztiak elebidunak direnean euskaraz beti aritzeko joera nabarmenagoa da, baita bietan aritzekoa ere. Hala, gaztelaniaren presentzia apalagoa da lagun elebidunen dentsitate bera genuenean baino.

5.3.3 Ikastetxean/lantokian

Lankideen arteko elebidun dentsitatearen araberako erabilera


	Denek edo ia denek dakite	Erdiek baino gehiagok	Erdiek dakite	Erdiek baino gutxiagok	Guztira
Beti euskaraz	22,6	0,0	0,0	0,0	6,3
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	26,4	8,2	3,4	1,6	10,4
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	24,5	30,6	17,2	1,6	17,7
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	5,7	20,4	34,5	14,8	16,7
Beti gaztelaniaz	20,8	40,8	44,8	82,0	49,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	53	49	29	61	192



Lankideen kasuan, joera hori areagotzen da, elebidun dentsitate altuena dugunean askoz ere nabarmenago aritzen direlarik euskaraz.

Ikaskideen arteko elebidun dentsitatearen araberako erabilera

	Denek edo ia denek dakite	Erdiek baino gehiagok	Erdiek dakite	Erdiek baino gutxiagok	Guztira
Beti euskaraz	25,9	0,0	40,0	0,0	18,6
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	25,9	16,7	0,0	0,0	18,6
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	22,2	0,0	0,0	0,0	14,0
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	11,1	0,0	0,0	40,0	14,0
Beti gaztelaniaz	14,8	83,3	60,0	60,0	34,9
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	54	12	5	15	86




Lankideekin gertatzen denaren antzera, elebidun dentsitate altuenean euskararen erabilera da nagusi eta gainerakoak euskaraz zein gaztelaniaz aritzen direnen eta gaztelaniaz gehiago edo soilik aritzen direnen artean banatzen dira.

5.3.4 Arlo pribatuan

Saltzaile elebidun dentsitatearen arabeko erabilera


	Denek edo ia denek dakite	Erdiek baino gehiagok	Erdiek dakite	Erdiek baino gutxiagok	Ez daki	Guztira
Beti euskaraz	11,1	5,4	1,5	1,1	0,0	1,6
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	33,3	10,8	2,9	4,6	0,0	4,6
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	0,0	21,6	7,4	11,5	0,0	8,9
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	33,3	16,2	25,0	21,3	7,4	18,7
Beti gaztelaniaz	22,2	45,9	63,2	61,5	92,6	66,1
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	9	37	68	174	81	369



Komertzioetako saltzaileei dagokienez, gaztelaniaren nagusitasuna elebidun dentsitate nahikoa ez antzemateari zor dakioke (oso lagin txikia dugu euskaraz erdiek baino gehiago edo denek edo ia denek dakitela dioena) edo bestela esanda, arnasgunerik edo erabilerarako aukerarik ez antzematea. Hala ere, erdiek baino gehiagok edo denek edo ia denek dakitela dioten artean erabilera nagusia gaztelaniari dagokio.

Bankuko elebidun dentsitatearen araberako erabilera

	Denek edo ia denek dakite	Erdiek baino gehiagok	Erdiek dakite	Erdiek baino gutxiagok	Ez daki	Guztira
Beti euskaraz	11,1	3,1	1,8	0,0	0,0	2,9
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	20,6	5,2	5,5	0,0	0,0	5,6
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	6,3	7,3	7,3	10,5	0,0	5,6
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	15,9	19,8	20,0	21,1	7,7	16,0
Beti gaztelaniaz	46,0	64,6	65,5	68,4	92,3	69,9
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	63	96	55	57	104	375




Bankuan lagina handiagoa den arren, saltzaileen kasuan gertatzen zen bezala, denek edo ia denek edo erdiek baino gehiago euskara jakin arren, gaztelania gailentzen zaio euskarari.

5.3.5 Administrazioan

Anbulatorioko elebidun dentsitatearen araberako erabilera


	Denek edo ia denek dakite	Erdiek baino gehiagok	Erdiek dakite	Erdiek baino gutxiagok	Ez daki	Guztira
Beti euskaraz	4,9	5,5	2,7	2,0	0,0	3,3
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	12,3	12,6	2,7	2,0	0,0	6,8
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	3,7	10,2	15,1	6,0	0,0	7,1
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	21,0	10,2	24,7	30,0	2,2	15,3
Beti gaztelaniaz	58,0	61,4	54,8	60,0	97,8	67,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	81	127	73	50	93	424



Anbulatorioan euskararen ezagutza edo elebidun dentsitatea altuagoa dela antzematen bazen ere, erabilera ez da bereziki altuagoa; denek edo ia denek dakitenean euskaraz gehiago edo gaztelaniaz bezainbeste aritzen direnak %20,9 dira eta gehixeago (%28,2) erdiek baino gehiagok dakitela sumatzen denean.

Udaleko elebidun dentsitatearen araberako erabilera


	Denek edo ia denek dakite	Erdiek baino gehiagok	Erdiek dakite	Erdiek baino gutxiagok	Ez daki	Guztira
Beti euskaraz	9,8	3,1	2,7	0,0	0,0	3,6
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	14,1	9,4	6,7	0,0	0,0	7,1
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	5,4	11,7	26,7	7,7	1,0	10,2
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	16,3	16,4	18,7	19,2	5,0	14,3
Beti gaztelaniaz	54,3	59,4	45,3	73,1	94,0	64,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	92	128	75	26	100	421



Udalan ere, gora beheraren bat tarteko, zenbat eta elebidun dentsitatea altuagoa izan, orduan eta zabalagoa da euskararen erabilera, hala ere, euskaraz denek edo ia denek jakin arren, gaztelania da nagusi kasu honetan ere.

Eusko Jaurlaritzako elebidun dentsitatearen arabeko erabilera


	Denek edo ia denek dakite	Erdiek baino gehiagok	Erdiek dakite	Erdiek baino gutxiagok	Ez daki	Guztira
Beti euskaraz	5,6	2,7	3,0	0,0	0,8	2,9
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	15,7	12,4	9,1	0,0	2,5	9,8
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	6,5	8,8	18,2	0,0	0,8	6,3
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	19,4	14,2	18,2	28,6	7,6	14,2
Beti gaztelaniaz	52,8	61,9	51,5	71,4	88,1	66,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	108	113	33	7	118	379



Joera bera errepikatzen da, baina elebidun dentsitate altuagoa dagoela hautematenenez, zertxobait altuagoa da euskaraz gehiago aritzen direnen portzentajea elebidunen kopurua altua dela hautematen den kasuetan (%20,3 eta %15,1).

Arabako Foru Aldundiko elebidun dentsitatearen araberako erabilera

	Denek edo ia denek dakite	Erdiek baino gehiagok	Erdiek dakite	Erdiek baino gutxiagok	Ez daki	Guztira
Beti euskaraz	16,0	0,0	6,7	0,0	0,0	5,2
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	4,0	16,7	20,0	0,0	4,8	9,3
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	8,0	4,2	20,0	0,0	4,8	7,2
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	16,0	25,0	20,0	41,7	4,8	19,6
Beti gaztelaniaz	56,0	54,2	33,3	58,3	85,7	58,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	25	24	15	12	21	97




Laginean kasu gutxi ditugun arren, gainerako administrazioetan errepikatu den joera nolabait jarraitzeaz gain, nabarmentzekoa da beti euskaraz aritzen direnen kopuru altua (%16).

5.4 ERABILERARAKO JARRERA


Lehen hitza administrazioan

	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Beti euskaraz	0,6	8,1
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago		7,0
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	1,7	9,9
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	6,7	25,0
Beti gaztelaniaz	91,1	50,0
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	180	272




Lehen hitza komertzioetan

	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Beti euskaraz		4,8
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago		5,6
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	1,6	8,9
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	7,1	28,1
Beti gaztelaniaz	91,2	52,6
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	182	270



Lehen hitza kalean

	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Beti euskaraz		4,1
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago		5,9
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	2,2	11,1
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	7,1	27,3
Beti gaztelaniaz	90,7	51,7
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	183	271



Inkestatuak aurrean duenak euskaraz ba ote dakien ez dakienean, honi zuzentzeko erabiltzen duen lehen hitza erdaraz izaten da beti edo ia beti kasurik gehienetan (%75-80). Beti euskaraz egiten dutenen portzentajea altuagoa da administrazioan, komertzioetan eta kalean baino.


6 GAZTERIA, AISIA ETA KIROLA

6.1 AISIALDIARI LOTUTAKO GAZTEENTZAKO ESKAINTZAREN KONTSUMOA (OROKORREAN ETA EUSKARAZ)

Extraeskolarrak

	Maiztasuna	Ehunekoa
Parte hartzen dute	301	67,2
Ez dute parte hartzen	147	32,8
Guztira	447	100,0


*2 eta 25 urte arteko seme-alabak dituzten familiak edo inkestatuak



Extraeskolarrak

	Maiztasuna	Ehunekoa*
Beti euskaraz	81	26,8
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	43	14,2
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	41	13,5
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	53	17,7
Beti gaztelaniaz	68	22,8
Beste hizkuntza batean	15	5,0
Guztira	301	100,0

*Kontsumitzen dituztenen gaineko portzentajea (familiak)




16 urtetik 25 urtera arteko inkestatuen eta inkestatuen adin horretako seme-alaben artean bi heren dira eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzen dutenak.

Parte hartzen dutenen artean, euskaraz soilik egiten dutenak laurdena baino gehiago dira (%26,8), bi hizkuntza ofizialetan gehiago ala gutxiago egiten dutenak ia erdia (%45,4) eta soilik gaztelaniazko ekintzak egiten dituztenak %22,8.

6.2 UDALEKUAK


Udalekuak

	Maiztasuna	Ehunekoa
Parte hartzen dute	198	44,0
Ez dute parte hartzen	252	56,0
Guztira	449	100,0



Udalekuak

	Maiztasuna	Ehunekoa
Beti euskaraz	104	52,8
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	34	17,2
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	13	6,5
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	18	9,0
Beti gaztelaniaz	19	9,5
Beste hizkuntza baten	10	5,0
Guztira	198	100,0



Udalekuen kasuan, eskolaz kanpoko ekintzetan baino txikiagoa da parte hartzea.

Baina parte hartzen dutenen artean erdiak baino gehiagok egiten du euskaraz eta eskolaz kanpoko ekintzetan baino portzentaje txikiago batek soilik gaztelaniaz (%9,5).



6.3 AISIALDIKO EKINTZAK

Aisialdiko ekintzak

	Maiztasuna	Ehunekoa
Parte hartzen dute	296	67,2
Ez dute parte hartzen	145	32,8
Guztira	441	100,0

Aisialdiko ekintzak

	Maiztasuna	Ehunekoa
Beti euskaraz	74	25,0
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	46	15,6
Euskaraz gaztelaniaz bezain beste	59	20,0
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	54	18,1
Beti gaztelaniaz	63	21,1
Beste hizkuntza baten	0	0,1
Guztira	296	100,0



Aisialdiko ekintzetan eskolaz kanpoko ekintzetan besteko parte hartzea dago eta hauetan bezalatsu banatzen da hizkuntzaren arabera.


Desberdintasun handiena bi hizkuntzatan berdin parte hartzen dutenen portzentaje altuagoan datza.

7 KIROL EKINTZAK

7.1 KIROL EKINTZEN KONTSUMOIA


Parte hartu zuten guztiak

	Maiztasuna	Ehunekoa
Bai	179	15,2
Izena eman zuen, baina ez zuen parte hartu	1	0,1
Ez	994	84,6
Guztira	1.174	100,0




Parte hartu hizkuntza gaitasunaren arabera

	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Bai	16,5	17,6
Ez	83,5	82,4
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	182	272



Zein hizkuntzatan eskaini

	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Euskaraz	6,7	17,4
Bietan	46,7	60,9
Gaztelaniaz	46,7	21,7
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	30	46



Udalak antolaturiko kirol ekintzetako parte hartzea nahiko baxua da (%15,2), eta hiztun perfilaren arabera sailkatuta ere ez dago alde handirik (elebidunen artean bi puntu t'erdiko aldea besterik ez).


Parte hartu duten horiei ekintza bera zein hizkuntzatan eskaintzen zen galdetuta, ordea, bada alderik. Hiztun elebidunek bi hizkuntzatan egiten zela uste dute nagusiki (%60,9) eta hartzaileen kasuan bi hizkuntzetan eta gaztelaniaz soilik egiten zela uste dutenen kopurua berbera da.

Euskaraz soilik eskaintzen zelako pertzepzioa, berriz, nabarmen altuagoa da elebidunen artean.

7.2 EUSKARAZKO KIROL EKINTZEN ESKARIA

	Euskaraz nahi	Bietan nahi	Gaztelaniaz nahi
Euskaraz eskaini	25	0,0	0,0
Bietan eskaini	54,2	76,5	75
Gaztelaniaz eskaini	20,8	23,5	25
Guztira	100	100	100
<i>Oinarria (n)</i>	24	17	4

Parte hartu duten elebidunen artean



Zein hizkuntzatan egin nahiko luketen galdetuta, elebidunek euskarazko eskaintzaren gaineko pertzepzioaren gainetik hautatuko lukete euskarazkoa.

Batetik, kirol ekintza euskaraz egingo luke gaztelaniaz soilik eskaintzen zela zioen %20,8 batek.


Bestetik, eskaintza soilik gaztelaniaz egiten zela uste zuenari (%23,5) bi hizkuntzatan egiteko aukera egotea gustatuko litzaioke.

8 KULTURGINTZA

8.1 ESKAINTZA KULTURALAREN KONTSUMOA


Parte hartu zuten guztiak

	Maiztasuna	Ehunekoa
Bai	150	12,8
Ez	1.024	87,2
Guztira	1.174	100,0




Parte hartu hizkuntza gaitasunaren arabera

	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Bai	14,3	21,7
Ez	85,7	78,3
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	182	272



Zein hizkuntzatan eskaini

	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Euskaraz	12,0	46,4
Bietan	60,0	32,1
Gaztelaniaz	28,0	21,4
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	25	56




Azken 12 hilabeteetan kultur jarduera batean parte hartu dutenak 16 urtetik gorako arabarren %12,8 dira eta hiztun perfilaren arabera, elebidunen artean ia hamar puntu handiagoa da parte hartzea.

Kultur jarduera zein hizkuntzatan eskaintzen zen galdetuta, euskaraz edo bietan egiten zela uste da nagusiki (%78,5 elebidunek eta %72 hartzaileek).


Ikuskizun handiak

	Maiztasuna	Ehunekoa
Bai	32	2,8
Ez	1.123	97,2
Guztira	1.155	100,0




Ikuskizun handiak

	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Bai	1,7	7,1
Ez	98,3	92,9
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	181	269



Ikuskizun handiak

	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Euskaraz		22,2
Bietan		44,4
Gaztelaniaz	100,0	33,3
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	2	18




Ikuskizun handietan izandako parte hartzea oso txikia da (%2,8) eta kasu honetan ere, elebidunen parte hartze portzenjea horren gainetik kokatzen da (%7,1).

Zein hizkuntzatan eskaintzen zen galdetuta, gehiengoak (%44,4) bi hizkuntzatan egiten zela dio eta heren batek gaztelaniaz.

8.2 EUSKARAZKO ESKAINTZA KULTURALAREN ESKARIA

Kultur jarduera eskaria

	Euskaraz nahi	Bietan nahi	Gaztelaniaz nahi
Euskaraz eskaini	71,0	15,0	0,0
Bietan eskaini	16,1	50,0	100,0
Gaztelaniaz eskaini	12,9	35,0	0,0
Guztira	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	31	20	3




Kultur jarduera euskaraz hautatuko luketenen artean, %12,9ak gaztelaniaz egiten zela dio.

Bestalde, bi hizkuntzetan parte hartzeko aukera egotea nahiko luketenen artean %35ek dio gaztelaniaz besterik ez zela eskaintzen eta %15ek euskaraz egiten zela.

Ikuskizun handiak eskaria

	Euskaraz nahi	Bietan nahi	Gaztelaniaz nahi
Euskaraz eskaini	28,6	22,2	18,2
Gaztelaniaz eskaini	28,6	44,4	54,5
Bietan eskaini	42,9	33,3	27,3
Guztira	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	7	18	11

Parte hartu duten elebidunen artean




Euskarazko eskaera altuagoa den kasuetan, euskaraz nahi eta soilik gaztelaniaz eskaintzen zela diotenen portzentajea da altuena (%42,9) eta bietan nahi eta soilik gaztelaniazko eskaintza izan zela ziotenena ondoren (%33,3).

Bestalde, bada gaztelaniazko ase gabeko eskaera bat ere, gaztelaniaz nahi zutenen artean %18,2k eta bietan nahi zutenen artean %22,2k euskaraz soilik eskaintzen zela baitiote.

8.3 IRAKURZALETASUNA ETA EUSKARAZKO LIBURUEN KONTSUMOIA


Liburuak orokorrean

Ez du irakurri	41,2
1 eta 5 artean	38,5
6 eta 10 artean	8,8
11 eta 20 artean	7,5
21 eta 50 artean	3,3
51tik gora	0,7
Guztira	100,0
Oinarria (n)	1172




Liburuak orokorrean

	Erdalduna	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Ez du irakurri	45,8	40,7	29,4
1 eta 5 artean	37,0	34,1	45,2
6 eta 10 artean	7,1	11,5	11,4
11 eta 20 artean	6,8	9,9	7,7
21 eta 50 artean	2,8	3,8	4,4
51tik gora	0,4		1,8
Guztira	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	718	182	272



Euskarazko liburuak (irakurleak)

	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Ez du irakurri euskaraz	85,2	59,1
1 eta 5 artean	14,8	38,3
6 eta 10 artean		0,5
11 eta 20 artean		2,1
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	108	193



16 urtetik gorako 10 arabarretik 6k irakurtzen dute , hautetatik 4k urtean liburu bat eta 5 artean.

Elebidunen artean irakurzaletasun handiagoa dago, 10etik 7k irakurtzen baitute.

Urtean 6 liburutik gora irakurtzen dutenen kopurua parekoa da elebidun hartzaile eta elebidunen artean.

Irakurzaleak direnen artean gehiengoak ez du euskaraz irakurtzen; elebidunen artean 10etik 4k irakurtzen du euskaraz eta urtean liburu 1etik 5era bitartean izaten da.


Elebidun hartzaile irakurzaleen artean gutxiago dira (%14,8) libururen bat euskaraz irakurtzen dutenak.

9 KOMUNIKABIDEAK ETA IKT-AK

9.1 TELEBISTA, IRRATIA ETA INTERNETEN ERABILERA (OROKORREAN ETA EUSKARAZ)


Telebista ikusi

	Maiztasuna	Ehunekoa
Egunero	992	84,5
Astean bitan edo hirutan	52	4,4
Asteburuetan	28	2,4
Noizean behin	86	7,3
Inoiz ez	16	1,3
Guztira	1.173	100,0




Telebista ikusi

	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Egunero	80,8	76,9
Astean bitan edo hirutan	7,1	8,8
Asteburuetan	3,8	3,3
Noizean behin	6,0	8,4
Inoiz ez	2,2	2,6
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	182	273



Telebista ikusi euskaraz (ikusleak)

	Elebidun hartzaileak	Elebidunak
Beti euskaraz		0,4
Euskaraz gehiago	0,6	6,8
Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste	5,6	18,8
Gaztelaniaz gehiago	30,9	51,1
Beti gaztelaniaz	62,9	22,9
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	178	266




Telebista 16 urtetik gorako ia arabar guztiak ikusten dute, baina maiztasun handiagoz ikusten dute erdaldunek, oro har.

Telebista ikusten duten elebidunen artean gaztelaniaz egiten du nagusiki gehiengoak.


Irratia entzun

	Maiztasuna	Ehunekoa
Egunero	766	65,3
Astean bitan edo hirutan	84	7,1
Asteburuetan	11	0,9
Noizean behin	230	19,6
Inoiz ez	82	7,0
Guztira	1.173	100,0




Irratia entzun

	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Egunero	63,2	54,0
Astean bitan edo hirutan	8,8	8,8
Asteburuetan		2,2
Noizean behin	22,5	25,0
Inoiz ez	5,5	9,9
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	182	272



Irratia entzun euskaraz

	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Beti euskaraz	1,7	5,3
Euskaraz gehiago	6,4	24,3
Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste	7,0	22,6
Gaztelaniaz gehiago	19,8	29,2
Beti gaztelaniaz	65,1	18,5
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	172	243



Irratia telebista baino gutxiago entzuten da, baita maiztasun apalagoarekin egin ere.


Elebidunen artean, telebistarekin gertatzen den bezala, gutxiago dira entzuten dutenak eta maiztasun txikiagoarekin egiten dute.

Entzuten dutenen artean, telebista baino portzentaje handiagoetan entzuten da irratia euskaraz, beti euskaraz edo euskaraz gehiago egiten dutenak %29,6 dira.

Elebidun hartzaileen artean ere bada beti euskaraz edo euskaraz gehiago entzuten duenik (%8,1) baita bietan berdin egiten duenik ere (%7).


Internet erabili

	Maiztasuna	Ehunekoak
Egunero	681	58,1
Astean bitan edo hirutan	60	5,1
Asteburuetan	3	0,2
Noizean behin	130	11,1
Inoiz ez	299	25,5
Guztira	1.172	100,0



Internet erabili


	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Egunero	74,3	87,5
Astean bitan edo hirutan	7,7	3,3
Asteburuetan		
Noizean behin	12,0	3,7
Inoiz ez	6,0	5,5
Guztira	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	183	272



Interneten erabiltzaileak

Internet erabili euskaraz

	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Beti euskaraz		0,4
Euskaraz gehiago		1,2
Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste	2,3	13,2
Gaztelaniaz gehiago	22,7	41,6
Beti gaztelaniaz	75,0	40,9
Beste hizkuntza batean		2,7
Guztira	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	172	257



Interneten erabilera da hiruren artean txikiena (hiru laurdenek erabiltzen dute) eta egunero erabiltzen dutenen portzentajerik txikiena duena (%58,1).


Hiztun perfilaren araberako erabilera aztertuta, elebidunen eta erabilera orokorraren arteko aldea handiena izateaz gain, kontrako joera dugu interneti dagokionean; telebista eta irratia erabilera jaitsi egiten den bitartean, internetenak gora egiten du elebidunen artean erabilera orokorrarekiko.

Erabilera hau nagusiki gaztelaniaz, soilik gaztelaniaz edo beste hizkuntza batean izaten da (%85,2).

Esanguratsua da beste hizkuntza batean egiten den erabilera euskaraz egiten dena baino altuagoa dela.

Edukia

	Maiztasuna	Ehunekoa
Tokiko albisteak: gertaerak, obra publikoak...	93	44,4
Musika	54	25,6
Kirola	35	16,6
Kultura orokorrean	11	5,3
Serieak	6	2,9
Politika (udal batzarrak, alderdien proposamenak...)	4	1,7
Agenda: kontzertuak, hitzaldiak, deialdiak...	2	1,0
Historia (aspaldiko kontuak...)	2	0,8
Gizartea (jaiak, ekitaldi sozialak...)	1	0,7
Euskara (tokiko euskara, euskalgintza arloko albisteak...)	1	0,6
Reality show	1	0,3
Guztira	210	100,0




Telebista ikusi, irratia entzun edo internet erabiltzen duten elebidun hartzaile eta elebidunek gehien jarraitzen duten edukia tokiko albisteak dira (%44,4) eta jarraian musika (%25,6).

9.2 SARE SOZIALEN ERABILERA


Sare sozialen erabilera

	Maiztasuna	Ehunekoa
Egunero	335	28,7
Astean bitan edo hirutan	89	7,6
Asteburuetan	4	0,3
Noizean behin	109	9,3
Inoiz ez	629	54,0
Guztira	1.165	100,0



Sare sozialen erabilera

	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Egunero	33,1	53,3
Astean bitan edo hirutan	10,5	5,9
Asteburuetan	1,7	0,4
Noizean behin	11,0	7,0
Inoiz ez	43,6	33,3
Guztira	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	181	270




Sare sozialen erabilera internetekoa baino are txikiagoa da (%46) eta egunero erabiltzen dutela diotenak ere internet egunero erabiltzen dutenen erdia inguru (%28,7).

Horien artean elebidunen erabiltzen dutenen portzentaje altuena duena, baita maiztasun handienarekin egiten dutenena ere.

Erabiltzaileen gaineko portzentajeak hizkuntzaren arabera


	Maiztasuna	Ehunekoak
Dena euskaraz	14	5,0
Euskaraz gehiago	16	5,9
Euskaraz zein erdaraz	13	4,8
Erdaraz gehiago	55	20,4
Erdaraz bakarrik	172	63,8
Guztira	269	100,0



Elebidunek sare sozialen erabilera euskaraz

	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Dena euskaraz		8,2
Euskaraz gehiago		9,4
Euskaraz zein erdaraz		7,6
Erdaraz gehiago	15,2	23,4
Erdaraz bakarrik	84,8	51,5
Guztira	100,0	100,0
Oinarria (n)	99	171

n=Erabiltzaile elebidunak




Elebidun hartzaile eta elebidunak kontuan hartuta, euskara erabiltzen dutenen kopurua %36,2an kokatzen da.

Sare sozialetan euskara, gehiago ala gutxiago, erabiltzen duten elebidunak, ordea, ia erdia (%48,5) dira; horien artean soilik euskaraz edo euskaraz gehiago egiten dutenak %17,5 dira.

9.3 EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEEN GAINEKO EZAGUTZA ETA ERABILERA

	Ezagutza	Irakurleak	(n)
Berria	66,3	6,5	1173
Alea	20,9	2,7	1171
Aiaraldea	72,0	22,6	126

n=Aiarako inkestatuak



Berria da euskarazko komunikabideen artean ezagutza (%66,3) eta irakurle kopuru altuena (%6,5) duena Araba mailan.

Aiaraldea proiektu komunikatiboak Aiarako inkestatuen gainean duen ezagutza maila (%72) eta irakurle kopurua (%22,6) are altuagoak dira.


Ezagutza mailaren eta irakurle kopuruaren arteko erlazioari erreparatuta, Aiara da ezagutzen dutenen artean gehien irakurtzen dena eta Berria gutxien.

	Erdalduna		
	Ezagutza	Irakurleak	(n)
Berria	53,5	1,7	718
Alea	10,0	0,4	717
Aiaraldea	55,9	5,9	68

	Elebidun hartzailea		
	Ezagutza	Irakurleak	(n)
Berria	76,9	3,3	182
Alea	23,1	3,8	182
Aiaraldea	82,6	21,7	23

	Elebiduna		
	Ezagutza	Irakurleak	(n)
Berria	93,0	21,2	273
Alea	48,2	8,1	272
Aiaraldea	94,3	54,3	35

n=Aiarako inkestatuak




Oro har, elebidunen artean da altuagoa ezagutza eta irakurle kopurua, baina Aiaraldean esanguratsua da erdaldunak edota elebidun hartzaileak izanagatik ere, ezagutzeaz gain, irakurri ere egiten dela.

10 EUSKARAREN GAINEKO HAUTEMATE, JARRERA ETA IRITZIAK

10.1 EUSKARAREN EGOERAREN INGURUKO PERTZEPZIOA (LEHEN, ORAIN ETA ETORKIZUNEAN)


Euskararen egoera orokorra

	Maiztasuna	Ehunekoa
Oso ona	19	1,6
Ona	627	53,9
Ez ona eta ez txarra	364	31,3
Txarra	36	3,1
Oso txarra	1	0,1
ED	116	10,0
Guztira	1164	100
INDIZEA		2,7



Euskararen egoera orokorra hizkuntza gaitasunaren arabera

	Erdalduna	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Oso ona	1,5	1,7	1,8
Ona	54,2	51,4	55,0
Ez ona eta ez txarra	28,0	37,6	35,4
Txarra	2,3	3,9	4,8
Oso txarra	0,1	0,0	0,0
ED	13,8	5,5	3,0
Guztira	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	710	181	271
INDIZEA	2,7	2,5	2,7




Euskararen egoera orokorrean ona edo oso ona dela uste dute arabarrek, zertxobait gehiago elebidunek erdaldunek eta elebidun hartzaileek baino.

Erdaldunak baino gehiago dira egoera txarra edo oso txarra dela uste duten elebidun zein elebidun hartzaileak.

Egoera ona edo txarra den esaten ez dakitenen portzentajea esanguratsua da erdaldunen kasuan.


Euskararen egoera Araban / Gasteizen

	Maiztasuna	Ehunekoa
Oso ona	3	0,3
Ona	355	30,6
Ez ona eta ez txarra	519	44,7
Txarra	194	16,7
Oso txarra	6	0,5
ED	82	7,1
Guztira	1160,1	100
INDIZEA	0,7	



Euskararen egoera Araban / Gasteizen hizkuntza gaitasunaren arabera

	Erdalduna	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Oso ona	0,1	0,0	0,7
Ona	32,2	32,0	25,8
Ez ona eta ez txarra	45,3	39,8	46,5
Txarra	10,9	26,5	25,5
Oso txarra	0,3	0,6	1,1
ED	11,2	1,1	0,4
Guztira	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	706	181	271
INDIZEA	1,0	0,2	0,0




Euskararen egoera Araban zein den galdetuta, ordea, egoera orokorrari buruzko pertzepzioa 25 puntu jaisten da eta jaitsiera nabarmenagoa da elebidunen kasuan.

Arabaren egoera txarra edo oso txarra dela dioten kopurua ere 14 puntu hazi egiten da eta hauen artean nabarmenago elebidun hartzaile eta elebidunen artean.

Euskararen egoera orokorra zein den ez dakitela erantzuten duten batzuek posizioa hartzen dute Arabako egoerari buruz galdetzean.


Iraganarekin alderatuta

	Maiztasuna	Ehunekoa
Askoz hobea	127	10,9
Hobea	835	71,7
Berdintsua	98	8,4
Okerragoa	11	0,9
ED	93	8,0
Guztira	1163,9	100
INDIZEA	4,6	



Iraganarekin alderatuta hizkuntza gaitasunaren arabera

	Erdalduna	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Askoz hobea	9,6	9,3	15,4
Hobea	71,5	74,9	69,6
Berdintsua	8,5	11,5	6,2
Okerragoa	1,0	1,6	0,7
ED	9,4	2,7	8,1
Guztira	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	710	183	273
INDIZEA	4,5	4,6	5,0




Iraganarekiko konparaketa egitean, oro har arabarrek egoera askoz hobea dela uste dute eta hauen artean elebidunak dira aurrerapen gehien sumatu dutenak.

Egoera berdintsua dela uste dutenen artean, ordea, elebidun hartzaileak dira nagusi eta jarraian erdaldunak.

Erantzuten ez dakitela dioten kopurua eraldunaren artean altua izateaz gain, elebidunen artean ere kontuan hartzekoa da (%8,1).


Etorkizunean

	Maiztasuna	Ehunekoa
Askoz hobea	28	2,5
Hobea	773	66,5
Berdintsua	220	18,9
Okerragoa	21	1,8
ED	119	10,2
Guztira	1161,9	100
INDIZEA		3,5





Etorkizunean hizkuntza gaitasunaren arabera

	Erdalduna	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Askoz hobea	2,4	1,6	3,3
Hobea	61,4	76,4	73,7
Berdintsua	19,6	18,7	17,0
Okerragoa	1,6	1,6	2,6
ED	15,1	1,6	3,3
Guztira	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	709	182	270
INDIZEA	3,2	3,9	3,9



Etorkizuneko egoerari buruz galdetuta, oro har, euskararen egoera hobea izango dela uste da eta ezkorrenak erdaldunak lirateke, iritzi orokorraren azpitik.




Arabako/Gasteizko euskararen egoera euskararen egoera orokorrarekiko askoz ere okerrago baloratzen da, eta egungo egoera orokorrean ez bezala, hiztun perfilen araberako desberdintasuna antzeman daitezke. Izan ere, elebidunek are okerragoa deritzote Arabako/Gasteizko euskararen egoerari.

Bestalde, iraganetik gaur eguneko egoerara emandako aurrerapena handiagoa dela uste da etorkizunean lortuko denarekin alderatuta.

10.2 ETORKIZUNEN ERREALITATE LINGUISTIKOAREN DESIRA (ETORKIZUNEAN NOLA HITZ EGITEA NAHIKO ZENUKE)


Etorkizunean zein hizkuntzatan egitea nahi

	Maiztasuna	Ehunekoak
Gaztelaniaz soilik	17	1,5
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	103	9,0
Gaztelaniaz eta euskaraz, bietan berdin	838	73,4
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	155	13,6
Euskaraz soilik	29	2,6
Guztira	1.142	100,0



Etorkizunean zein hizkuntzatan egitea nahi gaitasunaren arabera

	Erdalduna	Elebidun hartzaila	Elebiduna
Gaztelaniaz soilik	2,5	0,0	0,0
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	10,4	12,1	3,3
Gaztelaniaz eta euskaraz, bietan berdinean	79,9	72,5	57,2
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	6,9	13,7	30,5
Euskaraz soilik	0,3	1,6	8,9
Guztira	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	691	182	269



Arabarren gehiengoak (%73,4) jendarte elebiduna nahiago du etorkizunerako, bietan berdinean hitz egingo dena, alegia.

Hizkuntzetako bat besteari gailentzen zaionean, gehiago dira euskaraz soilik edo gehiago hitz egingo den jendarte nahiago dutela diotenak.

Hizkuntza perfilaren arabera elebidunen artean kokatzen da euskaraz soilik edo gehiago hitz egingo den egoera bat desio dutenen portzentaje altuena (%39,4).

Erdaldunen artean, berriz, gaztelaniaz soilik edo gehiago hitz egitea gustatuko litzaiekeen portzentajerik altuena.

Elebidun hartzailen kasuan, gaztelaniaz gehiago hitz egitea nahiko luketenak erdaldunen parean badaude ere (%12,1), euskaraz gehiago edo soilik hitz egitea gustatuko litzaiekeela diote neurri handixeago batean (%15,4).

10.3 DISKRIMINAZIO EGOERAK PAIRATU IZANAREN PERTZEPZIOA


Diskriminatuta sentitu, orokorrean

	Maiztasuna	Ehunekoa
Bai askotan	56	4,8
Bai, noizean behin	219	18,7
Ez, inoiz ere ez	899	76,6
Guztira	1.174	100,0



Diskriminatuta sentitu, gaitasunaren arabera

	Erdaldunak	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Bai askotan	4,2	4,5	6,6
Bai, noizean behin	19,1	9,1	17,6
Ez, inoiz ere ez	76,6	86,4	75,7
Guztira	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	880	22	272



Inoiz diskriminaturik sentitu diren 16 urtetik gorako arabarrak %23,4 dira.

Hizkuntza perfilaren arabera, antzekoa da banaketa elebidun deta erdaldunen artean; puntu bat gehiago besterik ez da diskriminatuta sentitu diren elebidun kopurua.

Elebidun hartzaileen kasuan desberdintzen da zertxobait banaketa, nahiz eta hauen artean ere, are nabarmenago gainera, gehiengoak diskriminaziorik jasan behar izan ez duela dioen.


Kontuan izan behar da elebidun hartzaileei egin zaien galdera euskaraz jakiteagatik inoiz diskriminatuak sentitu diren izan dela, hauetariko asko euskaraz egiteko gai ez direla izanik. Diskriminazio egoera pairatzeko aukera objektiboak, beraz, gutxiago dira. Hau hala izanik ere, %13,6 da diskriminatua sentitu dela dioena.

Dirkriminazioa pairatu dutela diotenen artean, askotan pairatu dutela diotenen portzentajea altuxeagoa da elebidunen kasuan.

10.4 ADMINISTRAZIO EZBERDINEN HIZKUNTZA POLITIKAREN GAINEKO BALORAZIOA


Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politikaren gaineko balorazioa

	Maiztasuna	Ehunekoak
Oso eskasa	20	1,7
Eskasa	52	4,4
Erdipurdikoa	96	8,3
Egokia	367	31,6
Oso egokia	171	14,7
Ez daki	458	39,4
Guztira	1163	100,0
INDIZEA		3,0



Eusko Jaurlaritzaren politikaren gaineko balorazioa hizkuntza gaitasunaren arabera

	Erdalduna	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Oso eskasa	1,8	3,3	0,4
Eskasa	4,5	1,6	6,3
Erdipurdikoa	7,6	13,6	6,3
Egokia	28,1	32,1	40,4
Oso egokia	13,6	20,1	13,7
Ez daki	44,3	29,3	33,0
Guztira	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	711	184	270
INDIZEA	2,7	3,9	3,1



Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politika 10etik 6k baloratzen dute eta hauen artean, gehiengo argiak egokia edo oso egokia dela deritzo.


Oso eskasa edo eskasa dela diotenak baino gehiago dira erdiko balioa emanaz ez batera ez bestera lerrokatzen ez direnak.

Hizkuntza perfilaren arabera aztertuta, elebidunena da baloraziorik positiboena, baina balorazio eskasa egiten dutenen kopurua erdaldunen eta elebidunen artean parekoa da. Bestalde, baloraziorik egiten ez dutenen kopurua altuagoa da erdaldunen artean.

Jarrera epelena azaltzen dutenen portzentaje altuena, hau da, ez batera ez bestera lerrokatzen ez direnak, elebidun hartzaileen artean aurki dezakegu (%13,6).


Arabako Foru Aldundiaren hizkuntza politikaren gaineko balorazioa

	Maiztasuna	Ehunekoa
Oso eskasa	19	1,7
Eskasa	58	5,0
Erdipurdikoa	110	9,5
Egokia	310	26,6
Oso egokia	130	11,1
Ez daki	536	46,1
Guztira	1163	100
INDIZEA	2,4	



Arabako Foru Aldundiaren hizkuntza politikaren gaineko balorazioa gaitasunaren arabera

	Erdalduna	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Oso eskasa	1,3	2,7	1,9
Eskasa	4,4	5,5	6,7
Erdipurdikoa	9,4	12,1	7,8
Egokia	24,6	24,7	33,3
Oso egokia	11,1	15,4	8,1
Ez daki	49,2	39,6	42,2
Guztira	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	711	182	270
INDIZEA	2,3	2,8	2,3



Diputazioaren lana baloratzean, erantzuten ez dutenen kopurua hazi egiten da Eusko Jaurlaritzaren balorazioarekiko. Bere lana Jaurlaritzak egiten duena baino ezezagunagoa dela esan genezake. Gainerakoan antzeko pertzepzioa dute arabarrek; gehiengoak egiten dena egokia edo oso egokia dela uste du eta oso gutxi dira (%6,7) Diputazioaren hizkuntza politikari oso eskasa edo eskasa dela deritzotenak.


Hizkuntza gaitasunaren araberako banaketan ere, erdaldun eta elebidunen arteko antzekotasuna azpimarratu beharrean gaude; erdaldunen artean baino.

elebidun gehiagok posizioa hartzen badu ere, egokia edo oso egokia dela uste du gehiengoak eta gutxiengo batek azaltzen du kontrakotasuna, zertxobait nabarmenago elebidun eta elebidun hartzaileen artean

Kasu honetan ere, jarrera epelena azaltzen dutenen portzentaia altuena, elebidun hartzaileen artean aurki dezakegu (%12,1).


Udalaren hizkuntza politikaren gaineko balorazioa

	Maiztasuna	Ehunekoak
Oso eskasa	32	2,7
Eskasa	68	5,9
Erdipurdikoa	125	10,8
Egokia	307	26,4
Oso egokia	159	13,7
Ez daki	471	40,5
Guztira	1162	100
INDIZEA	2,7	



Udalaren hizkuntza politikaren gaineko balorazioa gaitasunaren arabera

	Erdalduna	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Oso eskasa	2,4	3,8	3,0
Eskasa	5,8	4,9	6,7
Erdipurdikoa	12,1	13,2	5,9
Egokia	22,4	29,1	35,2
Oso egokia	12,8	17,6	13,3
Ez daki	44,6	31,3	35,9
Guztira	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	711	182	270
INDIZEA	2,3	3,4	3,1




Eusko Jaurlaritzaren politika baloratzen dutenen portzentajea parekatzen da Udalari buruz galdetzean.

Instituzio honetatik egiten den lana egoki edo oso egokitzat jotzen dutenak zertxobait gutxiago dira, gehiengoa izaten jarraitzen badute ere (%40,1).

Hala, balorazio txarra da hazi egiten dena (%8,6), eskalaren erdiko balorean kokatzen den jende kopuruarekin batera (%10,8).

Elebidunek politikaren gaineko iritzi polarizatuagoa dute eta normalean euren burua eskalaren alde batean edo bestean kokatzen dute.

Hala, alde batetik hizkuntza politikarekiko kritikoak direnak dira eta bestetik, hizkuntza politika gehien babesten dutenak.




Oro har, arabarrek hiru administrazioen hizkuntza politikak egoki jotzen dituzte, elebidun hartzailerek indize orokorraren gainetik hiru kasuetan, erdaldunek, berriz, indize orokorraren azpitik.

Administrazioen arabarako alde nabarmenik ez dagoen arren, Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politikarena da baloraziorik positiboena eta Arabako Foru Aldundiarena hiruren artean apalena.

10.5 GAI EZBERDINEKIKO IRITZIA


Euskara arabar guztien hizkuntza da, ez da inoren jabegoa

	Maiztasuna	Ehunekoa
Gutziz konforme	259	22,5
Nahiko konforme	234	20,3
Ez alde ez kontra	153	13,3
Nahiko kontra	266	23,2
Gutziz kontra	238	20,7
Guztira	1149	100,0
Indizea	0,0	



Euskara arabar guztien hizkuntza da, ez da inoren jabegoa

	Erdalduna	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Gutziz konforme	15,4	18,9	43,5
Nahiko konforme	17,5	17,8	29,4
Ez alde ez kontra	14,8	17,8	6,3
Nahiko kontra	27,1	21,7	14,1
Gutziz kontra	25,1	23,9	6,7
Guztira	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	701	180	269
Indizea	-1.4	-0.7	4.4



Euskara arabar guztien hizkuntza dela baieztatzen denean 16 urtetik gorako arabarren posizioa banatuta ageri da, kontra azaltzen direnak puntu bat gainerik daudelarik.

Hizkuntza perfilaren arabera jokaera desberdinak ikus daitezke erdaldun eta elebidunen artean.


Erdaldunak baieztapenaren kontra azaltzen dira nagusiki (%52,2) eta elebidunak baieztapenarekin bat datoz indar handiagoarekin (%72,9).

Talde bakoitzaren barnean iritzi nagusiaren beste aldean kokatzen direnak gehiago dira erdaldunen kasuan, heren batek begi onez ikusten baitu euskara arabar guztion hizkuntzatzat jotzea. Elebidunen artean, ordea, %20,8 azaltzen da baieztapenaren kontra.

Elebidun hartzaileen kasuan, erdaldunen antzeko parametroetan mugitzen da iritzia, baina aurrekoetan bezala posizionatzen ez den jende multzo garrantzitsuagoa dugu hauen artean eta egiten dutenen artean zertxobait aldekoagoa da iritzia.


Euskaldunen eta erdaldunen arteko errespetua bultzatu behar da

	Maiztasuna	Ehunekoa
Gutziz konforme	845	72,7
Nahiko konforme	299	25,7
Ez alde ez kontra	12	1,1
Nahiko kontra	2	0,2
Gutziz kontra	4	0,4
Gutzira	1163	100,0
Indizea	8.5	



Euskaldunen eta erdaldunen arteko errespetua bultzatu behar da

	Erdalduna	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Gutziz konforme	72,8	79,1	68,1
Nahiko konforme	25,4	20,3	30,4
Ez alde ez kontra	1,3	0,5	0,7
Nahiko kontra	0,1	0,0	0,4
Gutziz kontra	0,4	0,0	0,4
Gutzira	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	<i>709</i>	<i>182</i>	<i>270</i>
Indizea	8.5	8.9	8.3




Arabarren iritzian banaketarik txikiena edo batasun handiena eragiten duen baieztapena dugu euskaldunen eta erdaldunen arteko errespetua goraiatzeko duena.

Hiztunen perfilaren arabera ere, ez da desberdintasun agerikorik nabari.


Euskara ez dakitenek ere euskararen normalizazioa babestu beharko lukete

	Maiztasuna	Ehunekoak
Gutziz konforme	578	51,1
Nahiko konforme	398	35,2
Ez alde ez kontra	77	6,8
Nahiko kontra	43	3,8
Gutziz kontra	36	3,1
Guztira	1130	100,0
Indizea	6,4	



Euskara ez dakitenek ere euskararen normalizazioa babestu beharko lukete

	Erdalduna	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Gutziz konforme	47,3	57,4	57,3
Nahiko konforme	36,7	31,3	33,8
Ez alde ez kontra	8,4	4,5	4,2
Nahiko kontra	4,5	3,4	1,9
Gutziz kontra	3,2	3,4	2,7
Guztira	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	<i>694</i>	<i>176</i>	<i>260</i>
Indizea	6.0	6.8	7.1




Euskara ez dakitenek euskararen normalizazioan duten paperari buruzko baieztapenaren aurrean, arabar gehienek hauen inplikazioaren aldeko jarrera azaltzen dute.

Iritzi orokor horretatik gehien aldentzen den hiztun perfila elebidunarena da, are aldekoagoa baita bere jarrera.

Erdaldunen artean, berriz, iritzi orokorraren azpitik kokatzen da euren inplikazioa beharrezkoa dela onartzen duen baieztapenarekiko atxikimendua. Gainera, berriz, kontrakotasuna.


Zentzugabea da euskararen alde hainbesteko diru publikoa gastatzea

	Maiztasuna	Ehunekoa
Gutziz konforme	120	10,3
Nahiko konforme	125	10,8
Ez alde ez kontra	139	12,0
Nahiko kontra	316	27,2
Gutziz kontra	361	31,1
Ez daki	100	8,6
Guztira	1162	100,0
Indizea		-2,9



Zentzugabea da euskararen alde hainbesteko diru publikoa gastatzea

	Erdalduna	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Gutziz konforme	12,5	11,1	4,0
Nahiko konforme	13,5	8,9	5,1
Ez alde ez kontra	15,0	12,8	3,7
Nahiko kontra	27,7	22,2	29,3
Gutziz kontra	20,9	38,3	52,7
Ez daki	10,4	6,7	5,1
Guztira	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	<i>712</i>	<i>180</i>	<i>273</i>
Indizea	-1,6	-3,4	-6,8



Euskarari buruzko politikekiko negatiboki planteatuta dagoen baieztapena dugu honakoa.


Badirudi diruaz edo baliabide publikoez hitz egitean kontsentsu soziala apurtzen dela. Hala ere, arabarren gehiengoak ez du uste zentzugabea denik administrazio publikoak euskararen alde diru publikoa gastatzea (%58,3). Jarrera bera ageri zaigu nagusi hiru hizkuntza perfiletan; elebidun hartzaile eta elebidunen artean iritzi orokorraren gainetik, are nabarmenago elebidunen artean, eta iritzi orokorraren azpitik erdaldunenena, baina ia erdira iristen den balorea izaten jarraitzen du (%48,6).

Diru publikoa euskararen alde gastatzea zentzugabea dela diotenek pisu handiagoa dute erdaldunen artean eta ondoren, elebidun hartzaileen artean.

Hala posizio argirik hartzen ez dutenek, nola galdera honi erantzun nahi izan ez diotenek kontra azaldu direnen pisu bera dute erdaldunen eta elebidun hartzaileen artean.


Zenbait lanpostutarako euskara jakitea exijitu beharko litzateke

	Maiztasuna	Ehunekoa
Gutziz konforme	345	30,5
Nahiko konforme	321	28,4
Ez alde ez kontra	103	9,1
Nahiko kontra	222	19,6
Gutziz kontra	141	12,5
Guztira	1131	100,0
Indizea	2.2	



Zenbait lanpostutarako euskara jakitea exijitu beharko litzateke

	Erdalduna	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Gutziz konforme	23,8	33,1	45,9
Nahiko konforme	25,4	30,9	34,2
Ez alde ez kontra	9,9	6,6	8,3
Nahiko kontra	25,1	16,6	7,5
Gutziz kontra	15,6	12,7	4,1
Guztira	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	<i>684</i>	<i>181</i>	<i>266</i>
Indizea	0,8	2,8	5,5




Lan munduko hizkuntza eskakizunak ez dirudi bi komunitateren zatiketa (erdaldun eta elebidunen artekoa) eragiten duenik. Iritzi orokorra zenbait lanpostutarako euskara jakitea exijitzearen aldekoa da (%58,9). Erdaldunen artean aurkitzen dugu aldekotasunik apalena (%49,3) eta elebidunen artean altuena (%80,1).

Kontraktotasunak, baina, ez du aldekotasuna gainditzen inongo kasutan eta jarrera epelena azaltzen dutenen portzentajea erdaldunen multzoan dugu (%9,9).

Esanguratsua da, bestalde, gai gatazkatsua izanda ere, posizioa hartzen ez dutenen portzentajea altu samarra dela (%9,1).


Hobe da jendeak ingelesa ikatea euskara ikatea baino

	Maiztasuna	Ehunekoa
Gutziz konforme	221	19,6
Nahiko konforme	244	21,6
Ez alde ez kontra	319	28,3
Nahiko kontra	157	13,9
Gutziz kontra	188	16,6
Guztira	1129	100,0
Indizea	0,7	



Hobe da jendeak ingelesa ikatea euskara ikatea baino

	Erdalduna	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Gutziz konforme	24,1	16,4	9,6
Nahiko konforme	26,4	17,5	11,5
Ez alde ez kontra	32,2	22,0	21,9
Nahiko kontra	10,1	20,3	19,6
Gutziz kontra	7,1	23,7	37,3
Guztira	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	<i>692</i>	<i>177</i>	<i>260</i>
Indizea	2,5	-0,9	-3,2



Euskararen patrimonia arabar guztiona ote zen mahai ganean jartzen zuen lehen esaldiaren atzetik, honakoa izan da aldekoen eta kontrakoen pisua hurbilen izan duena, arabar iritzi orokorrean banaketa sortzen duena, alegia.


Baieztapen guztien artean hau izan da batere posiziorik hartu ez dutenen portzentaje altuena izan duena eta bereziki altua da joera hori erdaldunen artean (ia heren bat da ez dena ez alde ez kontra posizionatzen).

Gainera, hizkuntza perfilak kontuan hartuta, desberdintasunak ageri dira; erdaldunen gehiengoa ados dago ingelesaren erabilgarritasuna euskararenaren gainetik kokatzearekin (%50,6) eta elebidunen gehiengoa kontrako iritzikoa da (%56,9).

Elebidun hartzaileen multzoan, aldiz, orekatuagoa da banaketa; gehiengoa kontra badago ere (%44,1), ingelesa ikatea euskara ikatea baino hobe dela uste du heren batek.


Euskararen aldeko neurriek erdaldunak diskriminatzen dituzte

	Maiztasuna	Ehunekoa
Gutziz konforme	173	14,9
Nahiko konforme	207	17,8
Ez alde ez kontra	94	8,1
Nahiko kontra	281	24,1
Gutziz kontra	345	29,7
Ez daki	63	5,4
Guztira	1164	100,0
Indizea		-1,8



Euskararen aldeko neurriek erdaldunak diskriminatzen dituzte


	Erdalduna	Elebidun hartzailea	Elebiduna
Gutziz konforme	18,5	13,7	6,3
Nahiko konforme	21,7	15,3	9,2
Ez alde ez kontra	7,6	7,7	9,6
Nahiko kontra	23,5	22,4	26,8
Gutziz kontra	23,2	35,0	43,0
Ez daki	5,5	6,0	5,1
Guztira	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (n)</i>	<i>710</i>	<i>183</i>	<i>272</i>
Indizea	-0,6	-2,5	-4,6



Esaldi honekiko arabarren jarrera orokorra kontrakoa den arren, bada konforme azaltzen den ia heren bat.

Euskararen aldeko neurriek erdaldunak diskriminatzen dituztenik uste ez dutenak nagusi dira hiru hiztun perfiletan, nabarmenago elebidunen artean.

Neurriok erdaldunentzako diskriminaziorik suposatzen ez dutela diotenek pisu nabarmenagoa dute erdaldunen artean (%40,1).



Aldekotasun nabarmenena eta hiru hiztun perfilen arabera alderik ez dutenak lehen bi esaldiak dira; euskaldun eta erdaldunen arteko errespetua bultzatu behar dela dioena bata, euskaraz ez dakitenek ere euskararen normalizazioa bultzatu beharko luketela baieztatzen duena bestea.

